



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko uztailaren 24an

58 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- Milagroko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (20. or.).

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Milagroko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 2an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Milagroko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1997ko abenduaren 2an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Milagroko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (2. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (3. or.).
- IV. Iritzia (3. or.).
 - IV.1. Aurrekontuaren kitapenari dagokionean (3. or.).
 - IV.2. Ondare egoeraren azalpena (4. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (4. or.).
 - IV.4. Ekonomia- eta finantza-egoera (4. or.).
- V. Finantza-egoerak (4. or.).
- VI. Azterketa, ondorioak eta gomendioak (5. or.).
 - VI.1. Aurrekontua betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (5. or.).
 - VI.2. Kontingentziak (6. or.).
 - VI.3. Egoera ekonomikoa 1996ko abenduaren 31n (x6. or.).
 - VI.4. Santo Hospital Fundazioa (7. or.).
 - VI.5. Bestelako iruzkin orokorrak (8. or.).
 - VI.6. Intereseko alor bereziak (8. or.).

Eranskinak

1. Eskatu daitezkeen zorrak eta egin beharreko gastuen egoera 1996ko abenduaren 31n (17. or.).
2. Organigrama (18. or.).
3. Udalak aurkezturiko alegazioak (18. or.).
4. Udalak aurkezturiko alegazioei buruzko iruzkinak (19. or.).

I. SARRERA.

Milagro Erriberriko merindateko herria da, Tafallako epai-barrutikoa, 1996ko maiatzaren 1eko erroldaren arabera 2.585 zuzenbidezko biztanle dituen.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean dago, Arguedas, Cadreita, Valtierra eta Alesbes herriekin batera, Goi Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatean, Falces, Azkoien, Funes eta beste batzuekin batera, eta Ebroko Kirol Mankomunitatean, Arguedas, Cadreita, Valtierra, Alesbes, Castejón eta Cintruénigo herriekin batera.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearekin eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearekin bat etorriz, Kontuen Ganbarak bere jarduketa-programaren barruan sartu du Milagroko Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta 1996ko ekitaldiko Gastu eta Dirusarreraren aurrekontu-betetzea fiskalizatzeko lana.

Aztertutako udal erakundeari ezar dakioken legediaren barruan honako hauek biltzen dira funtsean: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legea (NTOFL), uztailaren 2ko 6/90 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa

(NTAFL); apirilaren 2ko 7/85 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa (TAOFL); 1981eko ekainaren 8ko Araua, Toki Ogasunak eraberritzeari buruzkoa (TOA), eta hori garatzeko erregelamendua (TOE), 1981eko abenduaren 17koa; eta orobat, Nafarroako Toki Erakundeei eskuarki ezar dakiekeen gainerako arautegia.

Txostenaren xedea hurrengo gaiei buruz gure iritzia ematea da:

a) Udalaren 1996ko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 1996ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera agertzea, eskuarki aplikatzen zaizkion kontabilitate-printzipioen arabera.

c) Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezketasun printzipioaren arabera garatu den ala ez aztertzea.

d) Entitatearen finantza-egoera 1996ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Kontuen Ganbarak, bere Jarduketa Programari jarraituz, Milagroko Udaleko 1996ko ekitaldiko fiskalizazio txostena burutu du.

Udal honetan Zaharrentzako Egoitzaren Patronatua dago, 1988an erakunde autonomo gisa eratu zena eta han bizi direnen kuotekin eta Nafarroako Gobernuaren eta udalaren dirulaguntza txiki batzuekin finantziatzen dena.

Dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak gainbegiratzeari eta udalaren ondare-egoera eta egoera finantzarioa aztertzeari lotu zaie lana. Antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolako alderdiak jorratu dira, eta gorabeheren arabera beharrezkotzat jo ditugun frogak egin dira, udalera lehendik bidalitako galdetegian agerian geratu diren arazoak direla eta. Horretan Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko Sektore Publikoaren Auditoretzaren Printzipio eta Arauak aplikatu dira.

Gure lanak izan dituen mugak honako faktore hauek eragin dituzte:

Udalan ezarri den kontabilitate sistema eskasa, batez ere inbentarioan eragiten duena. Udalaren kontabilitate sistemak aurrekontu-betetzearen jarraipena besterik ez du egiten (aurrekontu kontabilitatea); ez da kontabilitate orokorrik aurkezten udalak ekitaldi bakoitzaren bukaeran duen ondare-egoera azaltzen duenik.

- BEZari buruzko zerga-aitorpenek akatsak dituzte. Ezin izan da zenbatetsi zenbateko aldeak dauden.

Kutxako irizpidea aplikatzen denez, ezin izan ditugu 1996an sorturiko gastuak eta dirusarrerak doitu, sortzapenaren egunaz besteko egunetan erregistraturiko egitate ekonomikoengatik; horiek zehatz zenbatesteak lan honen norainokoak gainditzen ditu. Hala ere bai zenbatetsi da zeharkaleko sareak eta urbanizazioa berritzeko obren kasuan.

Udalak dituen zor batzuen agirizko euskarririk ez dago.

Zerga-aitorpenean, noizean behin ezberdintasun batzuk gertatzen dira.

Txostenean udalaren kontabilitate- eta administrazio-prozedurak eta orohar kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditugu.

Zelaiko lana 1997ko uztailaren burutu zen, batez ere.

Milagroko Udaleko langile guztien laguntza eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu baitute.

IV. IRITZIA.

Burururiko fiskalizazioaren barruan, Milagroko Udalaren 1996ko ekitaldiko gastu eta dirusarreraren aurrekontu-betetzearen egoera aztertu dugu.

Azterketan, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko Sektore Publikoaren Auditoretzaren Printzipio eta Arauak aplikatu ditugu.

Gure azterketatik, honako iritzi hau ondorioztatzen da.

IV.1. AURREKONTUAREN KITAPENARI DAGOKIONEAN.

Gure ustez, 1996ko ekitaldiko Aurrekontuaren Kitapenak nahiko ongi islatzen ditu Milagroko Udalaren fiskalizaturiko ekitaldian egindako eragiketak, ondoko salbuespenak salbuespen:

Txosten honetako III. atalean aipaturiko norainokoaren mugak.

Zerga kontingenteak egon daitezke, indarreko zerga-arauak batzuetan aplikatzen diren moduarengatik.

Kutxako irizpidea erabiltzea sortzapenaren printzipioa aplikatu beharrean, aurreko ekitaldian bezala. Horrek desbideraketak sortzen ditu,

esate baterako 15,3 milioi pezeta gutxiagoko gastu garbia 1996 ekitaldian Zeharkaleko Obren-gatik, izan ere aurreko ekitaldietako gastuak dire-lako, VI.6.5. atalean aipatzen den bezala.

Aurrekontuan jasandako BEZ kengarria -27,7 milioi pezeta- eta jasanarazitako BEZa -2,6 milioi pezeta- sartu dira; horiek ABIL bezala sartu behar ziren, emaitzazko udalaren aldeko saldoarekin, VI.3. atalean aipatzen den bezala.

Dirusarreraren erresultetan bildu eta gure ustez ekitaldiko akats egindakoetara pasatu beharko ziren kontusailengatik -8,2 milioi pezeta-, VI.6.14 atalean azaltzen den bezala.

IV.2. ONDARE EGOERAREN AZALPENA.

Ondareari buruzko kontabilitaterik eta, ondo-rioz, egoeraren balantzerik ez dagoenez, ezin dugu iritzirik eman 1996ko abenduaren 31n uda-lak zeukan ondare egoerari buruz.

IV.3. LEGEZKOTASUNA.

Oro har, udalaren jarduera indarreko legedia-ren arabera burutu da, aurrekontu-kontabilitatea-ren alorreko salbuespen batzuekin,. Txosten honetan zehar azalduko ditugu.

Santo Hospital Fundazioaren lege-egoerari eta fondoan erabilerari dagokienez eta aldetik, halako definizio-ez bat dago, txosten honetako VI.4. pun-tuan adierazten den bezala, udalak ABIL gisa sartu dituelako, fundazio hori berezko nortasun juridikoa duen entitatea izanda ere.

IV.4. FINANTZA-EGOERA.

Milagroko Udalak kutxako irizpidea eta ez sor-tzapenaren printzipioa aplikatuz aurkeztu ditu bere finantza datuak. Datu horiek aztertuta esan daiteke bere finantza-egoera saneatuta dagoela.

VI.3 kapituluan adierazten den bezala, 1996ko ekitaldian 2,5 milioi pezetako superabita eta 55,4 milioi pezetako aurrezki garbia egon zen. 1996ko abenduaren 31n 47,3 milioi pezetako diruzaintza-ko gerakina dago; hori guztia aintzat hartu gabe sortzapenaren printzipioa aplikatuz gero egin beharko lireratekeen doiketak.

Labur bilduz eta **ondorio orokor gisa**, hona hemen Milagroko Udalaren 1996ko aurrekontua-ren kitapenari buruzko zenbait xehetasun:

Nahiko ongi islatzen ditu ekitaldiko gastuak eta dirusarrerak, kutxako irizpidea erabiliz, aurreko ekitaldietan bezala. Sortzapenaren printzipioa aplikatzen bada, aurrekontuaren kitapena nabar-men aldatuko litzateke.

Beste aldetik, udalak baditu aurrekontua bete-tzeko oinarriak. Aurrekontua eta haren kitapena goiz onesten dira eta enplegatu bakoitzaren egin-kizunak idatziz jasota daude.

Udalaren egoera ekonomikoa saneatua da. Horri dagokionez, gogoratu behar da zeharkaleko obrak finantziatzeko egin diren ahaleginak, izan ere zerga bereziak ezarri baitziren horretarako.

V. FINANTZA-EGOERAK.

Milagroko Udalak aurkeztu dituen finantza-egoerak, 1996ko ekitaldiari dagozkionak, ondoko hauek dira:

Aurrekontuaren kitapena. 1996ko ekitaldia (pezetatan)

Gastuak

Kontua/kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko betebeharrak	Kitaturiko ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetzea, %	Aitorturiko guztizk. %
1. Langileen ordainketak	53.888.000	0	53.888.000	53.177.949	53.177.949	0	98,68	11,90
2. Ohiko ondasunak erostea .	66.440.000	0	66.440.000	64.473.147	63.259.517	1.213.630	97,04	14,43
3. Korrituak	12.100.000	0	12.100.000	9.992.356	9.992.356	0	82,58	2,24
4. Ohiko transferentziak	15.575.000	500.000	16.075.000	44.479.642	44.313.813	165.829	276,70	9,96
6. Inbertsio errealak	327.300.000	5.800.000	333.100.000	256.208.251	255.933.251	275.000	76,92	57,34
9. Finantza-pasiboan aldaketak.	16.972.000	0	16.972.000	16.338.093	16.338.093	0	96,26	3,66
Guztira	492.275.000	6.300.000	498.575.000	444.669.438	443.014.979	1.654.459	89,23	100

Informazio iturria: Milagroko Udala

Dirusarrerak

Kontua/kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko eskubideak	Kitaturiko dirubilketa	Kobratzeko dagoena	Betetzea, %	Aitorturiko guztizk. %
1. Zuzeneko zergak	49.400.000	0	49.400.000	46.780.855	44.434.486	2.346.369	94,70	9,47
2. Kontsumoaren g. zeharkako zergak	5.280.000	0	5.280.000	7.518.970	6.043.960	1.475.010	142,40	1,52
3. Tasak	73.395.000	6.300.000	79.695.000	113.914.402	110.290.291	3.624.111	142,94	23,06
4. Estatuaren ohiko transferentziak	77.200.000	0	77.200.000	75.115.535	75.115.535	0	97,30	15,20
5. Ondare dirusarrerak	1.000.000	0	1.000.000	575.157	575.157	0	57,52	0,12
6. Kapital eragiketak	2.000.000	0	2.000.000	0	0	0	0,00	0,00
7. Kapital transferentziak	274.000.000	0	274.000.000	163.231.613	163.231.613	0	59,57	33,04
9. Finantza-pasiboan aldaketak	10.000.000	0	10.000.000	40.000.000	40.000.000	0	400,00	8,10
Guztira	492.275.000	6.300.000	498.575.000	447.136.532	439.691.042	7.445.490	90,57	100

Informazio iturria: Milagroko Udala

VI. AZTERKETA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian ondorioak eta udalaren antolaketa eta barne kontrolerako sistema hobetzeko, egoki iruditzen zaizkigun gomendio orokorrak eman ditugu, horrela kudeaketan hobekuntza lortu ahal izateko.

VI.1. AURREKONTUA BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK.

IV Atalean Iritziari buruz esandakoa kontutan hartuz, aurrekontua betetzetik eratortzen diren honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

Milagroko Udalak 1995eko abenduaren 21ean onetsi zuen 1996ko ekitaldiko aurrekontua.

Aurrekontuaren betetzea 1997ko otsailaren 28an onetsi zuen Osoko Bilkurak.

1996ko aurrekontuak dirusarreraren eta gastuen betetze maila handia izan zuen.

1996ko aurrekontu-betetzeak, aurreko urteetako erresultak kenduta, 447,1 milioi pezetako aitorturiko eskubideak agertzen ditu; aitorturiko betebeharrak, berriz, 444,7 milioi pezeta egiten dute. Beraz, aurrekontu-betetzeak 2,4 milioi pezetako defizita agertzen du.

Gastuen egoeran (ikus V. atala), aitorturiko betebeharrari buruzko kapitularik garrantzizkoena inbertsio errealei buruzkoa da, izan ere guztizkoaren ehuneko 57 egiten duelako; ondotik ohiko ondasun eta zerbitzuak erosteari buruzkoa eta langileen lansariei buruzkoa datoz, hurrenez hurren ehuneko 14 eta 12 egiten dutenak.

Dirusarreraren egoeran (ikus V. atala), kapitularik garrantzizkoenak kapital transferentzietan buruzkoa eta ohiko tasei buruzkoz daude, aitorturiko

eskubideen ehuneko 33 eta 23 egiten dutenak, hurrenez hurren.

Beste aldetik, gastuen eta dirusarreraren zenbait egozketa oker daude, izaera ekonomikoaren ikuspuntutik, eta kutzako irizpidea aplikatzeak ondorioak ditu eragiketen mozketan.

Jasandako eta jasanarazitako BEZaren zenbatekoa aurrekontuan bertan dagoela jotzen da, Animsaren programa informatikoaren konfigurazioa dela eta.

Hirugarrenekin egindako eragiketen zerga-aitorpenak soilik udalarentzat jasandako BEZA kengarria sortzen duten eragiketak sartu dira.

Gure azterketan zehar, agerian jarri da 1996ko aurrekontuaren kitapena ondoko kontzeptuengatik aldatu behar zela:

Kutzako irizpidea besterik erabili ez denez, aurreko ekitaldiari zegozkion gastu eta dirusarrerak sartu dira, bai eta 1996ko ekitaldian sorturiko gastu eta dirusarrerak ere, urte horretako aurrekontuaren kitapenean sartu ez direnak, hain zuzen; ezin izan da horiek zenbatetsi, salbu zeharkaleko sareak eta urbanizazioa burutzeko obrei dagokienean.

Kasu batean edo bestean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokien legedia aplikatu ez denez, zenbatetsi ezin izan diren zerga pasibo kontingente batzuk ageri dira.

Zorren azalpenean sartu ez diren zenbait zor ageri dira; haien zenbatekoa ezin izan da zehaztu horiei buruzko dokumentazioa falta delako.

1994 baino lehenagoko berankeriak 8,2 milioi pezeta egiten du, erresulta gisa sartu direnak.

Aipatutakoa kontutan hartuz, hauxe gomendatzen dugu:

Gastuen eta dirusarreraren kontabilizazioak beren sortzapenaren arabera agertu behar du, aurrekontu-betetzearen jarraipen egokia egin ahal izateko, sortu baina kitatu ez diren kontusailletarako erresulten kontua erabiliz.

Langileen gastuak dagokien atalean kontabilizatzea, haien jatorri ekonomikoari jarraituz.

Jasandako BEZ kengarriaren eta jasanarazitako BEZaren zenbatekoak Aurrekontuaren Balio Independente eta Lagungarri gisa hartu behar dira, gutxienez urte bakoitzeko abenduaren 31 arte, nahiz eta urtean zehar horiek kudeatu aurrekontuko 49 eta 38. artikuluei jarraituz.

Aplikatu daitezkeen arauen arabera, hirugarrenekin egindako eragiketen aitorpena egitea.

PFEZari eta BEZari dagokien zerga-legedia hertsiki aplikatzea.

Zor guztien egiaztagiriak eskuratzea, bai eta haiek osorik islatzea zorraren egoeran.

Berankeria kasuan aurreikusitako prozedurak aplikatu eta Dirubilketa Agentziara pasatzea.

Toki sektore publikorako kontabilitate plan orokorra ezartzea, eta hori udalak dauzkan langileekin egin ote daitezkeen aztertzea; horretarako modurik ez badago, itun bat egin daiteke beste toki entitatearen batekin. Plan hori 1998 urterako ezartzea aurreikusi da.

VI.2. KONTINGENTZIAK

Txosten honetan zehar adierazi dugun bezala, zerga-pasibo kontingenteak daude bai Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan bai Balio Erantsiaren gaineko zergan ere.

VI.3. EGOERA EKONOMIKOA 1996KO ABENDUAREN 31N.

Jaso dugun informazioaren arabera eta aintzat hartuta txosten honetan biltzen diren iruzkinak, udalak ondoko finantza egoera dauka 1996ko abenduaren 31n, mila pezetakotan:

Kontzeptua	Zenbatekoak
Dirusarreraren erresultak	24.069
Diruzaintzako saldoa	25.651
Gastuen gerakinak	-2.466
Guztira	47.254

Diruzaintzako gerakinaren egoera hori, hala ere, doitu egin beharko litzateke kobratzeko dau-den 8,2 milioi pezeta inguruko ordainagiritako akats eta ordainezintasunarengatik, 1994 baino lehenagoko berankeria kasu guztiak aintzat harturik.

Udalak jasanarazitako BEZa eta jasandako BEZ kengarria dirusarrera eta gastu gisa kontabilizatu dira, hurrenez hurren: Aurrekontuko Balore Independente eta Lagungarri gisa kontabilizatu behar ziren. Hala egin izan balitz, dirusarrerek eta gastuek 2,6 milioi pezeta eta 27,7 milioi pezeta gutxiago egingen zuten, hurrenez hurren. Hori dela eta, aurrekontu-betetzearen diruzaintza-saldoa 25,7 milioi pezetakoa izatetik 50,7 milioi pezetakoa izatera pasatuko zen.

Beste aldetik, jarraian eman ditugu 1996 eta 1995 urteetako aurrekontu-betetzeetatik atera ditugun ratio eta magnitude batzuk, udalak berak

aurkeztuak. Esan beharrekoa da, dena den, erabilitako datuak kutzako irizpideari jarraituz kitatu direla:

Kontzeptua	1995 (*)	1996 (**)
Superabita (Defizita) (mila pezetatan)	18.219	2.467
Aurrezki gordina (mila pezetatan) (1)	50.239	81.774
Aurrezki garbia (mila pezetatan) (2)	30.488	55.444
Zorpetze maila (3)	9,19%	10,80%
Zorpetzearen muga (4)	23,37%	33,53%
Per cápita gastu publikoa (pezetak)	223.773	172.019
Biztanle bakoitzeko dirusarrerak (pezetak) (5)	152.415	99.113
Zergen bidezko dirusarrerak/biztanlea (pezetak) (6)	55.067	65.073

(*) 1995eko datuak doitu gabe daude.

(**) 1996ko datuak doitu gabe daude.

Ohiko dirusarrerak (Dirusarreei buruzko 1. kapitulutik 5. kapitulara) - Funtzionamendu gastuak (1, 2 eta 4. kapituluak).
Aurrezki gordina - Finantza karga. (3 eta 9. kapituluak).
Finantza-karga x 100/ Ohiko dirusarrerak
Aurrezki gordina x 100/ Ohiko dirusarrerak
Inbertsio gastuak /Biztanle kopurua
Zergen bidezko dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapituluak)/ Biztanle kopurua.

Jarraian, aurreko ratio eta magnitudeak komentatuko ditugu:

Bi ekitaldietan aurrezki gordinak eta aurrezki garbiak positiboak dira; bi kasuetan, 1996an igo dira. Horrek esan nahi du udalak inbertsioak finantziatzeko baliabideak sortzen dituela.

Zergen bidezko per capita dirusarrek gora egin dute 1996an. Eragin handia dute, batez ere, herrilurren probetxamenduak eta zuzeneko zergen igoerak.

Per capita inbertsioak nabarmen egin dute behera 1996an, izan ere 1995ean 394 milioi pezeta inbertitu zirelako eta 1996an inbertsioak gutxiago izan zirelako -256 milioi-. Edozein kasutan ere, zenbateko handia da beste batzuen aldean jartzen bada.

Zorpetze-mailak ez du gainditzen zorpetzeko gaitasunaren muga; horrek bidea emanen du kokapen ona izateko etorkizuneko ekitaldietan. Datu horri ondokoa erantsi behar zaio:

1. eranskinetik ondoriozta daitekeen bezala, 1996ko abenduaren 31n maileguengatik eta diru-aurrerakinengatik hartutako zorra 152,7 milioi pezetakoa da. Ordaintzeko obligazio bat dago

Nafarroako Aurrezki Kutxarekin, 1. eranskinean agertzen ez dena. Horren printzipalak 0,9 milioi pezeta egiten zuen 1996ko abenduaren 31n; diru horren amortizazioak aurrekontuan agertzen dira.

Aurretik adierazitakoaz gainera, zor luzatu bat ere badago kontabilitatean agertzen ez dena, Ebroko Ur Konfederazioarekin. Horren zenbatekoa ezin izan da zenbatetsi informaziorik ez dagoelako; diru horren amortizazioak aurrekontuan agertzen dira.

Islatu ez den beste zor bat badago, hain zuzen ere Nafarroako Gobernu Ingurugiro Departamentuarekin, oihan birlanaketen ondorioz sortu zena. Horren zenbatekoak 5,9 milioi pezeta egiten du aztertutako agiriei jarraituz; Departamentuak egindako zirkularizazioari kasu eginez gero, 11,5 milioi pezetako zorra dago. Ezin izan dugu argitu zein den alde horren arrazoia.

1996ko ekitaldiko finantza-kargak ondoko zenbatekoak izan ditu, mila pezetakotan

Kontzeptua	Aitorturiko obligazioak
Zorraren amortizazioarengatik	16.338
Korrituengatik	9.992
Guztira	26.330

Horren guztiaren ondorioz, uste dugu Milagro Udalaren egoera ekonomikoa ez dela aldatu edo egonkor mantendu dela; zorraren mugaeguneratzeari buruz dauzkagun informazioen arabera, udalak pasibo horiei aurre egin ahal izanen die etorkizuneko ekitaldietan.

VI.4. SANTO HOSPITAL FUNDAZIOA.

Izen horren pean Entitate bat dago, printzipioz berezko nortasun juridikoa duena. Dena den, egindako azterketan zehar, ondoko inguruabarrak agerian jarri dira:

- "Betiko gogoratzeko informazio espediente" bakarra eta entitate hori Onegintzazko Fundazio Partikular gisa sailkatu zuen 1927ko irailaren 17ko Errege Agindua ikusi ahal izan ditugu, Nafarroako Gobernu Gizarte Ongizate Departamentuak bidalitakoak; ez dago ez estatuturik ez horrekin zerikusirik duten bestelako agiririk ere.

Jaso dugun dokumentazioari jarraituz, Fundazioaren xedea da "besteen beharrian fisiko eta espiritualei dohainik erantzutea, izan ere eri behartsuak ospitaleratzeko xedea duelako..."

- Fundazioak, lortu ahal izan ditugun informazioen arabera, ez du inongo jarduerarik une honetan.

- Fundazioko kargu, funtzionamendu eta abarrei buruzko datu eskuragarriak ez dago; hutsune juridikoa sortzen du horrek, izan ere ez direlako inon ageri entitateak dituen betebeharrak, jarduteko gaitasuna eta abar.

- Fundazioak banku-entitate batean sarturiko fondo batzuk ditu; 21,7 milioi pezeta ziren 1996ko abenduaren 31n. Fondo horien titulartasuna Fundazioarena bada ere, udalaren kontabilitatean sartzen dira, ABILetan.

- 1995eko ekitaldian, udalak zenbateko horiek sorturiko korrituak erabili zituen; 1996an, berriz, korrituak kapitalizatu egin ziren eta udalak ez zuen fondorik batera erabili.

- Santo Hospital Fundazioaren izenean irekita-ko kontuetan 1996an izan ziren mugimendu bakarrak korrituen ordainketei eta korritu horiek PFE-Zaren atxikipenei buruzkoak dira. Banku entitateak ez digu agiri osagarriak eskuratu, ez zielako erantzun bidalitako zirkularrean adierazita-ko terminoei.

Aurreko lerroaldeetan azaldutakoaren arabera, hona gure gomendioak:

Argi ezartzea nori dagokion Fundazioaren benetako zuzendaritza.

Aurrekoaren harian, zehaztea adierazitako fondo-entitatearen titulartasuna norena den, bai eta fundazioak izan ditzakeen onegintzazko, laguntzazko eta abarretako betebeharrak ere.

Aztertzea Fundazioa gizartearen gaurko beharretara egokitzeko edo bestela udalak fundazioa bereganatzeko aukera.

VI.5. BESTELAKO IRUZKIN OROKORRAK

VI.5.1. Administrazio eta kontabilitate prozedurak.

Ez daude idatziz jasota kontabilitate eta administrazio zirkuitu nagusiak; betetzeari buruzko oinarriak, berriz, gutxieneko jarraibide batzuk biltzen dituzte.

Kontabilitatearen alorrean sobera lan dago, eskuzko kontabilitatea alde batetik eta kontabilitate informatikoa bestetik eramaten direlako.

Udalaren sistema informatikoan TRACASA enpresak bidalitako zenbait errolda berriz sartu izanak akatsak egotea ekar dezake.

Aurreko lerroaldeetan azaldutakoaren arabera, hona gure gomendioak:

Oinarrizko barne administrazio- eta kontabilitate-prozedura zehatzak ezartzea: erosketak, nominak, kobrantzak eta ordainketak.

Euskarri bakarria erabiltzea kontabilitatean.

TRACASA enpresak kalkulaturiko kontzeptuei dagozkien ordainagiriak zirkulazioan jartzea bideratuko duen formula egokia gauzatzea, datuak udalaren sistema informatikoan berriz sartzeko eragiketa alde batera uzteko.

VI.5.2. Ondarezko ondasunak.

Alor honetako azterketa egin ondoren, ondoko aldeak azpimarratu nahi ditugu:

Udalak ez du Lurzoruaren Udal Ondarea eratu, ez eta ohiko baliabideen ehuneko 5a aurrekontuan jartzen ere.

1996an ondasunen inbentario orokorra osatu gabe zegoen; 1997tik aurrera landa eta hiri ondasun komunalak eta ondarezko ondasunak inbertiatzen ari dira.

Udalak bere izenean inskribatuta ditu jabetza-erregistroan hiri eta landa jatorria duten zenbait ondasun; ezin da alderaketa bat egin erregistroko oharren eta landa eta hiri ondasun komunal eta ondarezkoen artean, izan ere kode ezberdinak erabiltzen direlako euskarri batean eta bestean.

Aurreko lerroaldeetan azaldutakoaren arabera, hona gure gomendioak:

Lurzoruaren Udal Ondarea eratzea, aurrekontuetan inbertsioetarako behar den zenbatekoa ezarriz.

Ondasunen inbentario orokorra egitea, ondasun guztia bertan bilduz, ez bakarrik landa- eta hiri-ondasunak; betiere garrantzi erlatiboaren irizpidea erabiliko da.

Jabetza-erregistroan inskribatutakoaren, ondasun komunalak eta ondarezkoen inbentarioaren eta ondasunen errealitate fisikoaren alderaketa egitea.

VI.6. INTERESEKO ALOR BEREZIAK

VI.6.1. Langileen soldatak

Langileen gastuei buruzko kapituluak, funtsean, langile funtzionarioen lansariak, lan kontratadunen Gizarte Segurantzako kuotak, Osasun Laguntza eta Montepioak biltzen ditu.

53,2 milioi pezetako aitorturiko obligazioak bilzen ditu kapitulu honek, eta aitorturiko guztizkoaren ehuneko 12 egiten du; behin betiko aurrekontuaren ehuneko 99ko betetze-maila agertzen du.

Hauek dira 1996 ekitaldiko langileen kapitulari buruzko xehetasunak:

Kontzeptua	Kitaturiko obligazioiak
Funtzionarioen lansariak	26.168
Udalkideak	1.430
Famili osagarria	447
Gizarte aseguruak	577
Osasun laguntza	542
Klase pasiboak	24.013
Guztira	53.177

Labur bilduz, 1996ko abenduaren 31n, hauek dira Udalean lanean ari diren langileak:

Funtzionarioak	8
Aldi baterako lan kontratadunak	7
Guztira	15

1996ko abenduaren 31n aldi baterako 10 langilek baja jaso zuten; ez dira laburpen honetan sartu.

Langile funtzionarioak honela banatuta daude:

Idazkaria	1
Administrari ofiziala	1
Diruzain ofiziala	1
Alguazila	2
Zerbitzu anitzetako langilea	1
Landazaina	1
Gidaria	1
Guztira	8

Diruzaintza udalak berak kudeatzen du, hain zuzen ere kontuhartzaile gaitua den pertsonak.

Udalak badu langileen organigramarik. Enplegatu bakoitzak dituen eginkizunak idatziz jasota daude. 2. eranskinean bildu dugu organigrama hori.

Arlo honetan datuak sortzeko eta kontabilizatzekeo jarraituriko prozeduren azterketa eginda, ondokoa geratu da agerian:

- Ez dira kapitulu honetan –bai 6. kapituluan– kontabilizatu kontratupeko langileei dagozkien gastuak, 16,7 milioi pezeta egiten dutenak.

- INEMen laguntzarekin kontraturiko langileei hilabetero egiten zaie nomina, alderdi hartako lan eskua kontratatzekeo prezioaren arabera ezarrita, dataren arabera; astero lan parteak egiten dituzte; PFEZa dela eta ehuneko 2ko atxikipena egiten zaie. Ez zaie dirurik atxikitzen Gizarte Segurantzaren kuotarengatik, izan ere kontratazioa prezio garbiaren arabera egiten baita.

- Enplegatu bakoitzari buruzko espedienteek ez dituzte haiei buruzko administrazio agiri guztiak biltzen.

- 1995eko ekitaldiko aparteko orduak eta erabili gabeko oporrak ordaindu zirela antzeman da; horiek 1996ko gastu gisa kontabilizatu dira. 0,9 milioi pezeta egiten dute.

- Badaude 0,4 milioi pezeta egiten duten ordainketa batzuk, herriko festekin eta kirol instalazioekin zerikusia dutenak eta Gizarte Segurantzari kotizaziorik ordaintzen ez diotenak.

- Gizarte Segurantzari abenduan ordaindutako 1,1 milioi pezeta dira; zenbateko hori ez zen hartu 1996ko gastu gisa, baizik eta 1997ko ekitaldiko gastu gisa.

- Udalarekin lan harremanen bat daukaten pertsona guztiek kasuan kasuko kontratua sinatu dute, salbu igerilekuetako aldi baterako langileak. Gora-behera hori 1997an zuzendu da.

Aurreko lerroaldetako iruzkinei jarraituz, ondoko gomendioak eman nahi ditugu:

Kontratupeko langileei dagozkien gastuak 1. kapituluaren kontabilizatzea.

Enplegatu bakoitzari buruzko espediente banakatua egitea, indarra duen legediari jarraituz.

Erabili ez diren oporrei eta aparteko orduen dagokienez, indarreko legedia aplikatzea.

Gizarte Segurantzari behar bezala kotizatzea eta PFEZaren atxikipen-portzentaiak zuzen aplikatzea.

VI.6.2 Ohiko ondasunen eta zerbitzuen erosketa

Aitorturiko obligazioek –64,5 milioi pezeta– aitorturiko guztiaren ehuneko 14 egiten dute; behin betiko aurrekontuaren ehuneko 97ko betetzea dute.

Ondokoak dira 2. kapituluaren xehetasunak 1996an:

Kontzeptua	Kitaturiko obligazioak
Bulego gastuetarako ohiko zenbatekoa	3.721
Higiezinetakoa	5.765
Garraioa	52
Bidai gastuak eta dietak	1.101
Funtzionamendurako gastu bereziak	49.481
Kontserbazioa eta ohiko konponketak	3.859
Inbentariatu daitekeen materiala	493
Guztira	64.472

Prozeduren eta kontabilizaturiko zenbatekoen azterketa eginda, ondorio hauek atera ditugu:

- Eragiketen mozketak desegokia egin da 1995 eta 1996 urteetan; kontusail asko daude horrek ukituta baina haiek zenbatespen zehatzak lan honen mugak gaintzen ditu.

- Badaude zenbait profesionali egindako ordainketa batzuk, non PFEZaren atxikipena ez den egin eta kasuan kasuko BEZa ez den aplikatu.

- Agirien euskarriek ez dituzte legearen behar-kizun guztiak betetzen, batez ere fiskalitateari dagokionez.

- Badaude kutzak egindako zenbait ordainketa behar den jasoagiria igorri gabekoak.

Aurreko lerroaldeetan zehaztutakoari jarraituz, hona gure gomendioak:

Fakturak eta haien formazko behar-kizun guztiak eskatzea –BEZa eta PFEZa–, gastuak ordaintzeko aurretiatzko baldintza gisa.

VI.6.3. Finantza gastuak

Kapitulu honek 10 milioi pezetako aitorturiko obligazioak ditu aurrekontuan, aitorturiko guztia-
ren ehuneko 2; behin betiko aurrekontuaren ehuneko 83ko betetzea du. Zenbateko honek kredituen korrituei dagokie.

Egindako azterketaren ondoren, hona hemen gure ondorioak:

Finantza-gastuak kutzako irizpidearen arabera kontabilizatzen dira; badaude 1995eko ekitaldiari dagozkion karguak eta ez da kontabilizatu 1997an ordaindutakoa. Ezin izan da kalkulatu 1996an sortu baina kontabilizatu gabeko gastuaren zen-

batekoa, ez dugulako izan informazio hori eskuratzeko modurik.

Zorren finantza-gastuak ordaintzen dira, baina ez dira finantza-pasibo gisa azaltzen; Patronatua-
rena esaten den etxebizitzari dagozkio –1996ko abenduaren 31n 0,9 milioi pezetako printzipala zeukan.

VI.6.4. Ohiko transferentziak.

44,5 milioi pezetako betetzea du, aitorturiko gastu guztiaren ehuneko 10 egiten du eta ehuneko 277ko betetze maila du.

Alor honetan azterketa egin ondoren, ondokoak ohartu ditugu:

Jasandako BEZaren kontabilitateko zenbatekoa gehiegi da; BEZ kengarriaren zenbateko handiagoa erregistratzen da, –5.7 milioi pezeta– 97ko lehenbiziko idazpenean zuzentzen dena.

Aurreko lerroaldeetan zehaztutakoaren arabera, gure gomendioa da BEZaren erregistroa egitea gutxienez urtero abenduaren 31n, aurrekontuaz gaineko kontzeptu gisa.

VI.6.5. Inbertsio errealak.

Kapitulu honek 256,2 milioi pezetako onartutako obligazioak biltzen ditu; aurrekontuaren betetze osoaren ehuneko 57 dira. Haien betetzeak behin betiko aurrekontuaren ehuneko 77 egin du.

Hona hemen 1996ko ekitaldian eginitako inbertsioei buruzko zenbait xehetasun mila pezetakotan:

Zeharkaleko sareak eta urbanizazioa	153.957
Urbanizazioa, desbideraketa	13.035
Bide seinaleak	5.723
Putzuaren hartune berria	5.208
Inbertsioetarako proiektuak	11.174
INEMekin egindako hitzarmenaren bitartez eginitako obra	13.869
Ur biltegi berria	39.816
Besterik	13.427
Guztira	256.209

Gure lanean lehenbiziko hurrengoak aztertu ditugu, batez ere:

Izena	Zenbatekoa	% / inbertsioa
Zeharkaleko sareak eta urbanizazioa	153.957	60
Ur biltegi berria	39.816	16
Guztira	193.773	76

Aipaturiko azterketaz gainera, kapitulu honetan honako hauek egiaztatu ditugu.

16,7 milioi pezeta egiten duten gastuak kontabilizatu dira, hain zuzen ere langile-gastuak.

Kutxako irizpidearen arabera kontabilizazioa.

Aurreko lerroaldeetan azaldutakoari jarraituz, hona gure gomendioak.

Sortzapenaren irizpidea aplikatzea eta gastuak egozteko jatorri ekonomikoaren arabera, batez ere kapitulu honetan aurrekontuan daukan garrantzi koantitatiboarengatik.

A) Zeharkaleko sareak berritzea eta urbanizazioa.

Zeharkalea urbanizatzeko obra 1996ko maiatzaren 4an jaso zen behin-behinekoz. Obraren jatorria 1993an dago, 1993ko urriaren 22ko proiektua onetsi zenean. Proiektu hori 1994ko urtarrilaren 27an aldatu zen: 879,3 milioi pezetako kontratako aurrekontua zeukan, BEZa barne.

Aurkeztutako dokumentazioa baloratzeko orduan, epea eta programa hartu ziren aintzat. 100 puntuko balioa eman zitzaion obrak lehiaketan ezarritako gehieneko epean burutzeari, hau da 30 hilabetetan. 50 punturekin baloratu zen proposamen-egileetako batek aurkeztutako betetzeko epe gutxienekoa. Uste dugu alderantzizko proportzioa erabili behar zela; horren arabera puntuazio altuagoa lortuko zuen lanak denbora gutxiagoan burutzeko proposamena egiten zuek, administrazio klausulen pleguari jarraituz, are gehiago aintzat hartzen bada prezioetan gero egiten zen aldaketa.

Adierazi diguten bezala, epearen irizpidea bete beharreko epeak atzeratzeko erabili zen; pleguan, ordea, "betetzeko eperik laburrena" baloratuko zela esaten da.

Ezin izan dugu egiaztatu nola baloratu zen esperientzia profesionala, ekipo teknikoa, makineria eta enpresak eskualdean zeukan interesa.

Proposamen ekonomikoari dagokionez, Kontratazio Mahaiak 100 punturekin baloratu zuen proposamenen batezbestekoa eta 50 punturekin batezbestekotik gehien aldentzen zena; horretarako, esan digutenaren arabera, Herrilan Departamentuak emandako irizpideak jarraitu zituzten. Balorazioa aplikatzeko modu horretan, puntuazio bera lortzen dute batezbestekoaren gainetik eta azpitik dauden proposamenek, zenbateko berdinarekin. Gure ustez, kudeaketa ekonomiko zuzen eta egokia egiteko, lehentasuna eman behar zaie prezio txikienei, salbu eskaintza merkeegiak

badaude, administrazio klausulen pleguan adierazten den bezala.

Kontratazio Mahaiak Zeharkaleko Sareak berritzeko eta Urbanizatzeko obrak behin-behinekoz esleitu zizkion 1994ko martxoaren 28an "Construcciones Martínez Chivite, S.A." enpresari, 625,9 milioi pezetatan, BEZa barne. Esleipen hori udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen egun berean egindako bilkuran.

Esleipenaren zenbatekoak kontrataren aurrekontuaren gaineko ehuneko 28,82ko beherapena egiten zuen. Zenbateko horretan Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion ehuneko 15a sartuta zegoen. Horrek esan nahi du kontrataturiko obraren balioa, BEZa barne, 544,2 milioi pezetako izan zela.

Obren hasieratik egindako obra-ziurtagirien zenbatekoek, BEZa aparte, ondoko zenbatekoak egin zituzten, mila pezetakotan:

1994	219.128
1995	244.933
1996	75.429
1997. Kitapena	59.063
Guztira	598.553

Horrek esan nahi du esleituriko prezioa baino ehuneko 9,98 gehiago kostatu zuela obrak.

Ez dira inon ageri kontratazio-organoak onetsirik aldaketak, nahiz eta arauari jarraituz baimendu gabeko aldaketak ere egin daitezkeen, betiere kontrataturiko prezioaren gaineko ehuneko 10era iristen ez badira.

Aurrekontu-betetzearen kontabilizazioa egindako ordainketen arabera burutzen da eta ez obra-ziurtagirien dataren arabera.

Obren behin-behineko jasoketaren egunetik, alegia 1996ko maiatzaren 4tik, behin betiko jasoketaren egunera, 1997ko maiatzaren 4ra, 62,5 milioi pezeta egiten zuten obra-ziurtagiriak egin ziren, hau da, une horretara arte egindako obraren guztizkoaren ehuneko 12.

Udalak eta kontratistak sinaturiko kontratuan, ez da adierazten esleipen prezioan BEZa barne denik.

Prezioen behin-behineko azterketan, 1997ko maiatzaren 8an, 1994ko apirilaren 19an jarri zen obren hasiera eta 1997ko maiatzaren 8an obrak bukatzeko eguna. Lanak burutzeko epea 30 hilekoa zen, beraz lan horiek 1996ko urriaren 19an ziren bukatzekoak. Prezioen behin-behineko berrazterketa horretan, zeharkaleko obren ondotik

egin zen desbideraketaren konponketari dagoz-kion zenbatekoak sartu ziren; horiek ez ziren kontratan sartzen; 12 hilabete baino gutxiago zegoen horiek egiteko eta ez dugu lan horien esleipenaren berri izan. Gure ustez, prezioen berrazterketa ezin zaie aplikatu desbideraketaren zenbatekoen prezioei. Horrek esan nahi du kontratistari 3,4 milioi pezeta gutxiago ordaindu zitzaizkiola.

Sortzapenaren printzipioa erabili beharrean kutxako irizpidea aplikatu denez, 86,5 milioi pezeta gehiago jarri behar ziren itxitako ekitaldietako gastuen erresultengatik eta 71,2 milioi pezeta itxitako ekitaldietako dirusarreraren erresultengatik, sortzapenaren printzipioa aplikatzen bada. Doiketa horrek sortuko luke gastuen 6. kapituluak eta dirusarreraren 7. kapituluak zenbateko horiek gutxiago agertu behar izatea.

B) Ur biltegi berria

Lizitazio aurrekontua 31,5 milioi pezetatan jarri zen. Prozedura gisa zuzeneko esleipena erabili zen, kontratista batzuk gonbidatu ondoren.

Jasotako eskaintza guztiek goragoko prezioak biltzen dituzte proiektuko prezioekin konparatuta. Hori dela eta, goragoko prezio horiek justifikatu zituen txosten teknikoa eskatu zen, izan ere alde handia zegoelako proiektuko prezioetatik merkaturako prezioetara.

Udalaren 1996ko otsailaren 15eko erabakiaren bidez, "Construcciones Martínez Chivite, S.A." enpresari esleitu zitzaizkion "Ur Biltegi berria" eraikitzeke lanak 34,7 milioi pezetatan, BEZa barne.

Obra-ziurtagirien zenbatekoak 46,2 milioi pezeta egiten zuten guztira; horrek esan nahi du ehuneko 33ko igoera izan zela esleipeneko prezioarekin alderatuz gero. Adierazi diguten bezala, gehiegizko prezio horren arrazoia proiektuan aurreikusten ez ziren obra berriko unitateak egin beharra izan omen zen.

Ez da inon ageri kontratazio-organoak onetsitako aldaketarik.

Aurrekontuetako gastua 35 milioi pezetakoa izan zen eta egindako gastuak (jasandako BEZa barne, kendu daitekeelako) 39,9 milioi pezeta egiten zuen. Horrek esan nahi du aurrekontuetako gastua baino ehuneko 14 garestiagoa izan zela.

Inbertsioen inguruan aurreikusitako guztia dela eta, hona gure gomendioak:

Kontratuei buruzko Foru Legeak eta kontratazio publikoa arautzen duten gainerako arauak heretsiki betetzea, espedienteek behar diren ziurtagiriak bil ditzaten.

Proposamenen balorazioa zuzen aplikatuko dela bermatuko duten aldagaiak eta formulak sar-tzea administrazio baldintzen pleguan.

Proposamenen balorazioa zuzen aplikatzen dela bermatuko duten barne kontroleko tresnak ezartzea, arrazionaltasun ekonomikoko irizpideak erabiliz.

Inbertsioak aurrekontu-betetzean kontabilizazioa sortzapenari jarraituz.

VI.6.6. Finantza-pasiboen aldaketak

Aitorturiko obligazioek guztira 16,3 milioi pezetako zenbatekoa egiten dute; hori aitorturiko gastu guztiaren ehuneko 4 da; betetze maila, berriz, ehuneko 96koa da.

Egindako lanetik ondorio hauek atera ditugu:

Kapitulu honetan, aurrekontuan sarturiko zorraren amortizazioaz gainera, Ebroko Ur Konfederazioarekin dagoen zor baten luzapenari dago-kion ordainketa ageri da, aurrekontuan sartu ez dena, baita mailegu hipotekario baten amortizazioa ere, aurrekontuan zor gisa agertzen ez dena.

Badago Nafarroako Gobernuarekin hartutako zor bat ere, "Birlandaketak egiteko Mailegua", aurrekontuan islatu ez dena.

Entitateak ez du dokumentaziorik Ebroko Ur Konfederazioarekin daukan zorrari buruz.

Aurretik azaldutakoari jarraituz, hona gure ondorioa:

Zorraren Egoeran 1996ko abenduaren 31n dauden zor guztiak sartzea eta zor horri buruzko agiriak eskuratzea.

VI.6.7. Gastuen erresultak

Gastuen erresultek 2,5 milioi pezeta egiten dute 1996ko abenduaren 31n. Kontzeptu honetan sarturiko hornitzaile guztiei ez zaie zirkularrik bidali, zorren garrantzi eskasarengatik: prozedura alternatiboak aplikatu ditugu.

Kontabilizaturiko prozedura eta zenbatekoak aztertuta, egiaztatu ahal izan dugu Erresultetan bi kontusail daudela hornitzaileei ordaindu ez zaizkien zenbatekoei dagozkienak, izan ere hornitzaile horiek ordaintzea eskatu ez dutelako.

VI.6.8. Zuzeneko eta zeharkako zergak.

Zuzeneko zergek 46,8 milioi pezetako kitaturiko eskubideak egiten dituzte, alegia, aitorturiko eskubideen ehuneko 10. Ondoko zerga hauek biltzen dituzte: landa kontribuzioa, hiri kontribuzioa, lizentzia fiskala eta zirkulazio zerga.

Zeharkako zergak 75 milioi pezetako kitaturiko eskubideak egiten dituzte, alegia, aitorturiko eskubideen ehuneko 2. Ondoko zerga hauek biltzen dituzte: Telefónicaren kanona, Eraikuntzen gaineko Zerga eta Ehiza Barrutien gaineko zerga.

Kontabilizaturiko prozedura eta zenbatekoak aztertu ondoren, ondokoak egiaztatu ahal izan ditugu:

Ordaintzeko borondatezko epea iragan ondok, ez da aplikatzen luzapenarengatiko errekar-gua.

Dirubilletako agenteari ez zaio kontraturik egin ez eta fidantzari eskatu ere.

Hiriko Lurralde Kontribuzioan, TRACASAK oker aplikatu du Ordenantzak onetsitako tasa. Horrek dirusarrera gutxiago ekarri dizkio udalari.

Ordainagiriak igortzeko, TRACASAK emandako datu batzuk bigarren aldiz sartu ziren; horrek akatsak egoteko bidea ematen du.

Ez dago udal arkitekturik; horrek eraikuntzen gaineko zergaren amaierako kitapenak egitea eta egindako eskaerei oniritzia ematea galarazten du.

Organo eskudunak ez ditu onetsi TRACASAK igorritako erroldei buruz egindako aldaketak.

Ez dago idatziz jasota zein arau jarraitu behar diren erroldetan euskarririk ez duten dirusarrerak gertatzen direnean.

Azaldutakoaren arabera, hona gure gomendioak:

Luzapenarengatiko errekar-guak aplikatzea, behin ordaintzeko borondatezko epea iragan denean.

Dirubilletako agenteari dagokionez, haren egoera legeztatzea kontratuei eta kasuan kasuko fidantzari dagokionez, bai eta kontuak emateko egutegi bat eta udalak kobratu gabeko zorrak dirubilletako agenteari igortzeko mugaegun bat ezartzea.

Ordainagiri edo jasoagiriak igortzeko derrigorrezko prozedura bat ezartzea, jatorria erroldetan ez duten dirusarrera guztietarako, betiere ordainagiriak egiteari buruzko zerga-arautegia errespetatuz, aplikatu daitekeenean, batez ere BEZari dagokionez.

TRACASArekin koordinatzea erroldak eta ordainagiriak igortzeko datuak bigarren aldiz sartzeari saihesteko. Altak, bajak eta aldaketak jasotzeko prozedura bat ezarriko da, TRACASAK

emandako zenbatekoak eta udalak igorritakoak adostuak egon daitezzen.

Udal arkitektu bat izendatzeko aurrekontuetan dagoen aukera aztertzea, erabat Milagroko Udalean lan egiteko edo beste toki entitateetan ere batera aritzeko.

VI.6.9. Tasak eta bestelako dirusarrerak.

Kitaturiko eskubideen 113,9 milioiko zenbatekoa egiten dute, hau da, aitorturiko eskubide guztien ehuneko 23. kapitulu honetan ondoko gaiengatiko dirusarrerak kontabilizatu dira: ur hornidurarengatiko eta lotunea izateagatiko tasak, estoldak, kontribuzio bereziak, jasanarazitako BEZa eta zerga horren saldoen itzulketak, igerilekuetako kuotak, bide publikoa okupatzeagatiko tasak eta lerro elektrikoak, makalen enkantea eta herrilurren probetxamendua. Horiek guztiak Udaltzak onetsiriko ordenantzen arabera biltzen dira.

Kontrol prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertuta, ondokoak ohartu ditugu:

- Ez da ageri euskarria erroldetan ez duten zenbait zergen bidezko dirusarreraren kobrantza arautzen duten idatzizko araurik, hala nola bide publikoa okupatzeagatiko tasak, agiriak igortzea, koadro eta liburuak saltzea.

- Ur horniduren tasari dagokienez, udalak ez du "Aurrekontuko Balore Independente eta Lagungarri" gisa erregistratu ur hartune eta saneamentuarengatiko kontribuzio bereziaren BEZa. Udalak dirusarrera gisa kontabilizatu du jasanarazitako BEZa eta jasandako BEZ kengarria, hau da, gastu bezala itzulketarako edo diru gutxiago sartzeko bidea emanen duena. Nafarroako Gobernuak BEZaren itzulketak ematen duenean, dirusarrera gisa sartzen da ekitaldian jasanarazitako BEZekin batera.

- 1996ko maiatzaren 13an 4.804 makalen enkantea egin zen. Esleipen hartzailea pertsona fisiko bat izan zen, kasuan kasuko fidantza jarri zuena. Hala ere, arbolak moztu eta egurra ateratzeko lanak eta udalari ordaintzen diona entitate juridiko bat izan zen. Baldintzen pleguaren arabera, oihan probetxamendu horretan ezin ziren laga edo eskualdatu enkantean jarritako produktuak, Nafarroako Foru Diputazioak baimena ematen ez bazuen, udalaren oniritziarekin eta lagapen-hartzaileak fidantza jarri ondoren. Baldintza horietako bakarra ere ez da bete.

- Udalak uste izan zuen makalen salmentarengatik ez zela BEZa ordaindu behar, 1997ko ekitaldian enkanteko tasari ehuneko 4ko zerga-tasa ezarri bazitzaion ere, Nekazaritzako Araubide

Berezian ezarrita dagoenari jarraituz. Aplikatu daitezkeen arauetatik ondoriozta daitekeenez, eragiketa horiek zergapetu behar dira.

- Udalak 1994ko azaroaren 3an, "Milagroko Zeharkaleko sareak berritzeko eta urbanizatzeko" kontribuzio bereziak ezarri zituen, 1995 eta 1996 urteetan ordaindu beharrekoak eta ustez BEZA ordaindu behar ez zutenak. Horren ondorioz, udalarentzako dirusarrera garbia milioi bat gutxiago izan da, jasanarazitako BEZak ez zuelako dirusarrera handiagoa ekarri.

- Kontribuzio berezi horren ordainagiritan ez zen jasanarazitako BEZaren azalpena jarri.

- Kontribuzio Bereziaren laugarren epeari zegokion BEZa, 0,5 milioi pezeta, ez zen zegokion artikuluan jarri; hala ere kontuan hartu zen urteko aitortpena aurkezteko garaian, aurrekontuez kanpoko kontzeptu gisa izan bazen ere.

- 1996ko dirusarreraren aurrekontuaren kitapenean, tasa eta bestelako dirusarreraren atalean, 1995eko ekitaldian sorturiko dirusarrera batzuk bildu dira, hain zuzen ere 1995eko Iberdrolaren eta Telefonicaren kanonak. Beste aldetik, ez dira sartu 1996ko ekitaldian sorturiko dirusarrera batzuk, aurreko kontzeptu horiexengatik. Egindako lanari jarraituz, hona hemen kontzeptu horien gutxi gora-beherako zenbatespena, mila pezeta-koetan emana:

a) 1995ean sortu eta 1996ko kontabilitatean erregistratu zirenak -1,3 milioi pezeta-.

b) 1996an sortu eta 1997ko kontabilitatean erregistratu zirenak -1,1 milioi pezeta-.

Aurretik azaldutakoaren arabera, hona hemen gure gomendioak:

Behar diren ordenantzak onestea tasak behar bezala araututa egon daitezzen.

Erroldetan euskarria ez duten zergen bidezko dirusarrerak jarraitzeko prozedurak ezartzea.

Errolden, udalak igorritako ordainagiriaren eta TRACASAk bidalitako arteko adostea, Landa Zaintzari dagokionez, izan ere 100.000 pezeta-ko aldea agertzen baitu.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuarekin zehatz ezartzea zein diren udalak dituen zerga-betebeharrak, izan ere nekazaritzako araubide berezian dagoelako eta aldi berean araubide orokorreko eragiketak burutzen dituelako.

Zergen ordainarazpenetan altak, bajak eta aldaketak behar bezala kudeatzeko prozedurak ezartzea, bai eta ordainarazpen horiek onestea ere.

Formari jarraituz, udalak egiten dituen eragiketa guztiei exigitzen zaien zerga-araubidea aplikatu behar da, batez ere BEZari dagokionez, ordainagiriaren igorpena, hirugarrenekin eginiko eragiketen aitortpena eta Nekazaritzako Araubide Berezian sartzea barne.

Bai jasanarazitako BEZa, bai jasandako BEZ kengarria, ABILen kontabilizatu beharko ziren. Horrek ekitaldi bukaeran kobratzeko edo ordaintzeko saldoa emanen du, urteko kitapena egin eta gero, eta ordainketa edo kobrantza egiten den ekitaldiko aurrekontu-sail gisa hartuko da.

VI.6.10. Ohiko transferentziak.

Ohiko transferentziek kitaturiko eskubideen 75,1 milioi pezeta-ko zenbatekoa biltzen dute. Dirusarrera guztien ehuneko 15 egiten dute. Zenbateko horrek kontzeptu hauek biltzen ditu, batez ere: Nafarroako Zergen Partehartze Fondoa, lurralde-erakundearen bestelako ohiko dirulaguntzak eta Estatuko zergen partehartzea.

Aplikaturiko kontrol prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertu ondoren ondokoa ohartu dugu atal honetan:

- Dirusarreraren aurrekontuaren kitapenean 1995ean sorturiko zenbait dirusarrera sartu dira; beste aldetik, ez dira bildu 1996an sorturiko zenbait dirusarrera. Egindako lanaren arabera, hona hemen kontzeptu horiei buruzko gutxi gora-beherako zenbatespena:

a) 1995ean sortu eta 1996an kontabilizatu direnak: 1995eko Estatuko Zergen Partehartzea, 0,4 milioi pezeta.

b) 1996ko ekitaldian sortu eta 1997an kontabilizatu direnak, 1,5 milioi pezeta.

Azaldutakoaren arabera, hona gure gomendioa:

Aintzat hartzea dirusarreraren sortzapen eguna, eta haien kobrantza erresulten kontuen bitartez doitzea.

VI.6.11. Ondare dirusarrerak.

Ondare dirusarrerak aitorturiko eskubideen 0,6 milioi pezeta egin dute, alegia, dirusarrera guztien ehuneko 0,12. Banku kontuetan lorturiko korrituak eta dirubilketako agentziako kobrantzen doiketak biltzen dituzte.

Prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertu ondoren, ondokoa egiaztatu ahal izan dugu:

- Dirubilletako Agentziari entregaturiko nominalen eta agentzia horrek jasotako en arteko aldeengatik doiketak, atal honetan sartzen direnak.

- Garrantzi gutxiko aldeak daude eragiketen mozketak desegokiarengatik.

Aurreko lerroaldeetan azaldutakoari jarraituz, hona gure gomendioak:

Dirubilletako Agentziak bidalitako zenbateko txikiagoko gastu gisa hartzea, baina ez ondare-dirusarrera txikiagoa balitz bezala.

Eragiketen mozketak egokia egiteko behar diren irizpideak ezartzea.

VI.6.12. Kapital transferentziak

Kapital transferentziak 163,2 milioi pezeta egiten dute, hau da, dirusarrera guztien ehuneko 33; eraikuntzarako dirulaguntzak eta partehartzeak, obrak egitekoak, INEMen dirulaguntzak, ureztalurretarako dirulaguntzak eta makalak landatzeko laguntzak biltzen dituzte.

Hona hemen dirulaguntza eta partehartze horiei buruzko zenbait xehetasun, mila pezetakotan:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Zeharkaleko obrak (partehartzeak eta dirulaguntzak)	136.639
Ur biltegiko obrak	17.813
INEMen dirulaguntzak obrak hitzarmenaren bidez egiteko	3.867
Ureztalurretarako dirulaguntzak	2.563
Makalak landatzeko dirulaguntzak	2.351
Guztira	163.233

Aplikaturiko kontrol prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertuta, ondokoa egiaztatuta ahal izan dugu:

Zeharkalean sareak berritzeko eta urbanizazioa egiteko obrei dagokienez, 1996 ekitaldiko dirusarrera gisa hartu da Nafarroako Gobernuaren Herrilan Departamentuaren partehartzea, hau da, obra-ziurtagirien ehuneko 8 –36,2 milioi pezeta–. Zenbateko hori 1996ko urtarrilaren 1eko dirusarreraren erresultetan sartu behar zen.

Halaber, badago Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioiko Departamentuak 1996an emandako dirulaguntza bat, 35 milioi pezetakoa, aurreko ekitaldietako dirusarreraren erresultei dagokiena.

Dirusarreraren aurrekontuaren kitapenean, ez dira sartu 1996ko ekitaldian sorturiko dirusarrerak, hain zuzen ere 1997ko kontabilitatean sartu dire-

lako. Ingurugiro Departamentuak emandako 2 milioi pezetako dirulaguntza bati dagozkio.

Aurreko lerroaldeetan azaldutakoaren arabera, hona gure gomendioak:

Dirusarrerak sortzapen egunaren arabera hartzea; haien kobrantza dirusarreraren erresulten kontuak erabiliz doitu behar da.

VI.6.13. Finantza-pasiboen aldaketak.

Kitaturiko eskubideek, guztira, 40 milioi pezeta egiten dute, hau da aitorturiko dirusarrera guztien ehuneko 8.

Alor honi buruz egindako lan eta egiaztapenetatik, ondorio hauek atera daitezke:

Udalaren Osoko Bilkurak erabakita, 30 milioi pezetako mailegua hartu zen, hasieran aurreikusitako ez zena, behar den aurrekontu-aldaketa egin gabe.

Aurreko lerroaldean azaldutakoa dela eta, hona gure gomendioa:

Behar diren aurrekontu aldaketak egitea, indarreko legediak ezartzen duen bezala.

VI.6.14. Dirusarreraren erresultak

1996ko abenduaren 31n, dirusarreraren erresulten zenbatekoak 24 milioi pezetara egiten zuen. Hona hemen haiei buruzko zenbait xehetasun, mila pezetakotan emanak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
1996ko berankeria	7.445
1. espedientea. Dirubilketa Agentzia (1994 baino lehenagokoak)	7.398
2. espedientea. Dirubilketa Agentzia (1993, 1994 eta 1995)	5.946
Entregatu gabeko berankeria kasuak (1993, 1994 eta 1995)	3.279
Guztira	24.068

Zordunei ez zaie zirkularrik bidali, izan ere Dirubilletako agentearen esku daudelako zor gehienak; zirkularrak, beraz, dirubilletako agente-ari bidali dizkiegu.

Prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertuta, hona egiaztatuta ahal izan duguna:

Ez dago erresultetako zenbatekoei buruzko informatika-kontrol fidagarririk; eskuzko jarraipena eskatzen duten zerrenda batzuk erabiltzen dira oinarri.

Udalak ez ditu ezeztatzen edo bajara pasatzen kobraezinak diren zorrak.

Sistema informatikoak ez du biderik ematen kobratutako zenbatekoak bajara pasatzeko, kobrantza zordun jakin bati pasatuz; zorraren zenbateko osoari ematen zaio baja. Horrek ekartzen du eskuzko zerrenda bat etortzea zerrenda informatikoarekin guttitzkoei dagokienez, baina ez zordunen banakako datuetan.

1995 baino lehenagoko zor batzuk badaude, Dirubilketa agenteari pasatu ez zaizkionak.

Ez dago idatzizko prozedurarik zorrak dirubilketako agenteari pasatzeari buruz, behin betiko bajak emateari buruz, ezeztapenei buruz edo ardurei buruz.

1996 ekitaldiko berankeriako kasuak ez zaizkio Dirubilketa agenteari bidali.

Aurreko lerroaldeetan azaldutakoaren arabera, hona gure gomendioak:

Alor honi dagozkion irizpideen gaineko prozedurak ezartzea, batez ere probisioei buruz, behin betiko bajei buruz, zorrak Dirubilketako agenteari bidaltzeari buruz eta ardurak norenak diren zehazteari buruz.

Dirusarreretako erresulten zenbatekoa probisioatzea, gutxienez 1994 urtetik atzerako berankeria kasuak, % 100eko tasa erabiliz; gutzira 8,2 milioi pezeta.

Zordunentzat egokia izanen den informatika kontrola ezartzea, haien jarraipen banakatu eta fidagarria bermatzeko.

VI.6.15. Diruzaintza

Alor honetan egindako azterketatik abiatuta, agerian jarri da ondoko akatsak daudela:

Santo Hospital Fundazioa titularra den banku-kontuetako saldoak diruzaintza atalean sartu dira.

Aurreko lerroetan azaldutakoaren arabera, gure gomendioa da Santo Hospital Fundazioaren izenean diren banku-kontuek fundazio horrek legezko egoeraren arabera izatea.

VI.6.16. Aurrekontuko Balore Independente eta Lagungarrien Liburua (ABIL)

ABILen jasoko dira kontabilitatez kanpoko izaera duten eragiketa guztiak eta udalarentzat gas-turik nahiz dirusarrerarik ekartzen ez dutelako aurrekontuan jasotzerik ez dauden balore edo fondo guztiak, hain zuzen ere udala dirubiltzaile edo diruzain hutsa delako.

Liburu horretan erregistraturiko kontzeptu eta zenbatekoak aztertu ondoren, ondoko akatsak antzeman ditugu:

Kultura eta Musika Batzordearen banku-kontuen saldoak "Fidantzak eta Diru-gordailuak" izenekoan sartu dira, jatorri hori ez badute ere.

1996ko abenduaren 31n, liburu horretan ez da jarri egun horretako BEZaren aitortpenari dagokion saldoa, alegia, 18,8 milioi pezeta udalaren alde.

Aurreko lerroaldeetan azaldutakoari jarraituz, hona gure gomendioak:

Ez jartzea balore independente gisa jatorri hori ez duten baloreak.

Aurrekontuko balore independente eta lagungarrien jatorria zuzen egozte, edukia islatzen duten izenburuak ezarri.

Urte bakoitzeko abenduaren 31ko BEZaren egoera Aurrekontuko Balore Independente eta Lagungarrien liburuan (ABIL) islatzea.

VI.6.17. Hirigintza

Udalak baditu 1988ko irailaren 14an onetsiriko arau subsidiarioak.

Udalak ez du Lurzoruaren Udal Patronaturik.

Landa eta hirigintzako ondasun komunalei eta ondare-ondasunei buruzko Udal Ondarearen inbentarioa 1997an burutu da.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen arabera, gogorarazi nahi dugu Lurzoruaren Udal Ondarea eratu behar dela eta bertan sartu behar direla hirigintza planeamenduak lurzoru urbanizagarri edo lurzoru urbanizagarri programatu gisa sailkaturiko ondarezko ondasun guztiak. Edozein kasutan ere, Ondare horretan sartuko dira lagapenen –lurzoruak edo eskudirua–, edozein modutako desjabetzaren eta tanteatze eta atzera-eskuratzearen ondorioz eskuratutako ondasun guztiak.

Gure gomendioa da udal ondare osoari buruzko inbentarioa egitea, bai eta hori kontrolatzeko sistema bat ezartzea ere, Jabetzaren Erregistroan eta Lurralde Aberastasunaren artxiboetan dauden datuekin behar den alderaketa eginez.


Iruñean, 1997ko azaroaren 20an

Lehendakaria, Francisco Javier Tuñón San Martín

ERANSKINAK**1. ERANSKINA. ESKATU DAITEZKEEN ZORRAK ETA EGIN BEHARREKO GASTUEN EGOERA 1996KO ABENDUAREN 31N.**

(pezetatan)

Aurrekontuko Konzeptua	Hartzekoduna	Azalpena	Zenbat (pezetatan)	Maileguen mugaeguna
930.90	Nafarroako Aurrezki Kutxa	Diruzaintza	20.000.000	97-09-24
930.90	Nafarroako Aurrezki Kutxa	Diruzaintza	10.000.000	97-10-11
930.90	Banesto	Diruzaintza	10.000.000	97-07-25
956.94	Caja Rural de Navarra	Zeharkaleko urbanizazioa	13.750.000	07-03-31
957.90	Nafarroako Aurrezki Kutxa	Kaleetako urbanizazioa	10.000.000	99-09-17
958.90	Nafarroako Aurrezki Kutxa	Kirol instalazioak eraikitzea	15.629.870	99-01-23
956.94	Nafarroako Aurrezki Kutxa	Zeharkaleko urbanizazioa	18.333.333	07-03-08
956.95	Nafarroako Aurrezki Kutxa	Kirol instalazio berrietarako lur.	22.200.000	07-05-17
956.93	Nafarroako Aurrezki Kutxa	Tutoretzapeko apartam.	32.787.658	16-12-31

2. ERANSKINA. UDALAREN ORGANIGRAMA 1996KO ABENDUAREN 31N.**3. ERANSKINA. UDALAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK**

Udal honi buruzko 1996 ekitaldiko behin-behineko fiskalizazio-txostena jaso eta aztertu ondoren, erantsita bidaltzen dizkizut txosten horri aurkeztu dizkiogun alegazioak, horretarako emandako epean. Alegazio horiei erantzuteko eta behin betiko txostenean jartzeko eskatzen dizut.

Milagron, 1997ko azaroaren 11n.

Alkate-udalburua,

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA
5. OR.:

“Udalak dituen zor batzuen agirizko euskarririk ez dago.”

ALEGAZIOAK

Badaude udalak dituen zor (maileguak eta kredituak) guztien agirizko euskarriak, salbuespen hauekin:

- Ebroko Ur Konfederazioak defentsa obretarako eman zigun 2.979.585 pta.ko diru-aurrerakina, 20 urtean itzultzekoa. Une honetan 1.494.036 pta. daude itzultzeko.

- Fco. Franco Patronatuko etxebizitza bat erosteko mailegua. Une honetan 488.344 pta. falta dira ordaintzeko.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA
10. OR.:

“Zorren azalpenean sartu ez diren zenbait zor ageri dira; haien zenbatekoa ezin izan da zehaztu horiei buruzko dokumentazioa falta delako.”

ALEGAZIOAK

Badago interesik gabe 20 urtetan dirua itzultzeko diru-aurrerakin bat eta Fco. Franco Patronatuko etxebizitza bat erosteko mailegu bat.

Aurrerakinak urtean 166.004 pta.ko amortizazioa ekartzen du; etxebizitza erosteko maileguak urtean 488.344 pta.. 98-12-31n bukatuko da ordaintzen.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA
12. OR.:

“Aurretik adierazitakoaz gainera, zor luzatu bat ere badago kontabilitatean agertzen ez dena, Ebroko Ur Konfederazioarekin. Horren zenbatekoa ezin izan da zenbatetsi informaziorik ez dagoelako; diru horren amortizazioak aurrekontuan agertzen dira.”

ALEGAZIOAK

Aurretik esandakoaz gainera, badago Ebroko Ur Konfederazioak defentsa obretarako eman zigun 2.979.585 pta.ko diru-aurrerakina, 20 urtean itzultzekoa. Zenbateko hori ageri da Udaleko

dokumentazioan, baina ezin izan da datua egiaztatu Ebroko Ur Konfederazioak ez digulako informazio hori eman.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA

18. OR.:

“Badaude zenbait profesionali egindako ordainketa batzuk non PFEZaren atxikipena ez den egin eta kasuan kasuko BEZa ez den aplikatu.”

ALEGAZIOAK

Ondoko esleipenei buruz ari da: “Ur Zerbitzuen Mantenimendua”, “Argiteria Publikoaren Zerbitzuko Mantenimendua” “Osasun Kontsultategiaren Garbiketa” “Ikastetxe Publikoa garbitu eta atenditzea”. Esleipen horiek zenbait enpresaren alde (autonomoak) egin ziren. Beraz, ezin da PFEZaren atxikipenik egin. Edozein kasutan ere, ulertzen da BEZa esleipen prezioaren barne dagoela.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA

18. OR.:

“Agirien euskarriek ez dituzte legearen behar-kizun guztiak betetzen, batez ere fiskalitateari dagokionez.”

ALEGAZIOAK

Ordainagiriren batek ez ditu fiskalitate-beharkizun guztiak betetzen: IFZa edo helbide fiskala falta ditu.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA

18. OR.:

“Badaude kutzak egindako zenbait ordainketa behar den jasoagiria igorri gabekoak.”

ALEGAZIOAK

Ordain-agindurik bat badago behar den “Jaso dut” agiria ez duena baina bankuko ordainketaren edo transferentziaren gordekina duena.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA

21. OR.:

“Hirugarren lerroalde osoa sobran da: “Prezioen behin-behinko azterketan, 1997ko maiatzaren 8an, 1994ko apirilaren 19an jarri zen obren hasiera eta ... esan nahi du kontratistari 3,4 milioi pezeta gutxiago ordaindu zitzaizkiola.”

ALEGAZIOAK

Lerroalde osoa sobran da, izan ere obra horretarako onetsi zen Administrazio Klausulen Pleguak 7.6 “Obra Lagungarri edo osagarriak” puntuan argi ezartzen duelako kontratistari obra

lagungarriak (zeharkaleko desbideraketako obrak) enkargatu ahal izanzen zaizkiola, betiere obra nagusiaren ehuneko 20 gainditzen ez badute, kontratuan ezarritako prezioetan.

Hori dela eta, burutzeko epeari buruz eta prezioen berrazterketari buruzko aipamenek ez dute zentzurik. Prezioen berrazterketa aplikatu daiteke kontratu bera delako.

4. ERANSKINA. UDALAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI BURUZKO IRUZKINAK.

1997ko azaroaren 12an, Kontuen Ganbarako erregistroan Milagroko Udalak Kontuen Ganbarak udal horri buruz egindako behin-behineko fiskalizazio-txostenari aurkezturiko alegazioak.

Aurkezturiko alegazioetako batzuk alegazioen hasierako agiritik kendu dira, izan ere Kontuen Ganbarak onartu eta behin betiko fiskalizazio-txostenean behar diren zehazpenak egin dituelako.

Onartu ez direnak Kontuen Ganbararen behin betiko fiskalizazio-txostenean erantsi dira, izan ere udalaren ikuspuntutik txostenean esandakoak argitzeko azalpenak ematen dituztelako.

Txostenari aurkezturiko alegazioei dagokienez, horietako azkenari buruz, “zeharkaleko desbideraketa konpontzea” obra osagarriko prezioen berrazterketari buruz, Kontuen Ganbarak ondokoa zehaztu nahi du:

Foru Komunitateko Administrazioaren kontratuei buruzko 13/1986 Foru Legearen 56.4 artikularen arabera, obra nagusiko prezioaren % 20 gainditzen ez duten obra lagungarri edo osagarriak obra nagusiko esleipen hartzaile den kontratistari esleitzen ahal zaizkio, Milagroko Udalak egin duen bezala. Hala eta guztiz ere, Kontuen Ganbara honek uste du obra horiek ez esleitutako proiektuan ez hasierako kontratuan sartu ez direnez, beste esleipen bat eta beste kontratu bat egin behar zirela, izan ere obra horiek burutzeko baldintzak ezarriko dituztenak, kontratista obra nagusiko kontratista bera izanda ere.

Hori aintzat hartzen bada, eta indarreko legediari jarraituz, obra lagungarri berri horiek burutzeko epea 6 hilabete baino gutxiagokoa bada, udalak ez du prezioak berraztertzeko formulak aplikatzeko beharrik. Horrek, txostenean esaten den bezala, gastua 3,4 milioi pezeta gutxiagokoa izatea ekar lezake.

Iruñean, 1997ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Fco. Javier Tuñón San Martín

Tuterako Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 9an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Tuterako Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1997ko abenduaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Tuterako Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (20. or.).
- II. Helburua (20. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (21. or.).
- IV. Iritzia (21. or.).
 - IV.1. Aurrekontuaren kitapenari dagokionean (21. or.).
 - IV.2. Ondare egoeraren azalpena (21. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (21. or.).
 - IV.4. Kontuen Ganbararen aurreko txosteneko gomendioen jarraipena (21. or.).
 - IV.5. Egoera ekonomiko eta finantzarioa (21. or.).
- V. Finantza-egoerak (22. or.).
- VI. Azterketa, ondorioak eta gomendioak (22. or.).
 - VI.1. Aurrekontua betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (22. or.).
 - VI.2. Kontingentziak (29. or.).
 - VI.3. Egoera ekonomikoa 1996ko abenduaren 31n (29. or.).
 - VI.4. Aurreko txosteneko gomendioen jarraipena (31. or.).
 - VI.5. Bestelako iruzkin orokorrak (31. or.).
 - VI.6. Intereseko alor bereziak (31. or.).

Eranskina: 1996ko abenduaren 31ko organigrama (42. or.).

I. SARRERA.

Tutera Nafarroako hegoaldean dago, Iruñetik 94 kilometrora. 27.063 zuzenbidezko biztanle ditu. Biztanle kopuruaren arabera, Foru Komunitateko bigarren hiria da.

Udalak bi erakunde autonomo ditu: Tuterako Uren Udal Batzarra eta Castel-Ruiz Kulturgunea. Sartuta dago Erriberako hondakin solidoen mankomunitatean eta parte hartzen du Erriberako Garapen Estrategietarako Partzuergoan (E.G.E.P.). Partzuergo horren helburua Nafarroako Erriberako garapen integrala da.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearekin eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearekin bat etorritik, Kontuen Ganbarak bere jarduketaprogramaren barruan sartu du Tuterako Udalaren eta haren bi erakunde autonomoen –Uren Batzarra eta Castel-Ruiz Kulturgunea– 1996ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta Gastu eta Dirusarriren aurrekontu-betetzea fiskalizatzeko lana.

Aztertutako udal erakundeari ezar dakioken legediaren barruan honako hauek biltzen dira funtsean: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legea (NTOFL), uztailaren 2ko 6/90 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa (NTAFL); apirilaren 2ko 7/85 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa (TAOFL); 1981eko ekainaren 8ko Araua, Toki Ogasunak eraberritzeari buruzkoa (TOA), eta hori garatzeko erregelamendua (TOE), 1981eko abenduaren 17koa; eta orobat, Nafarroako Toki Erakundeei eskuarki ezar dakikeen gainerako arautegia.

Txostenaren xedea hurrengo gaiei buruz gure iritzia ematea da:

- a) Udalaren eta honen menpeko erakundeen 1996ko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- b) 1996ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera agertzea, eskuarki aplikatzen zaizkion kontabilitate-printzipioen arabera.
- c) Udalaren eta haren erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezketasun printzipioaren arabera garatu den ala ez aztertzea.

d) Entitatearen finantza-egoera 1996ko abenduaren 31n.

e) Nafarroako Kontuen Ganbarak Tuterako Udalari buruz egindako azken fiskalizazio txosteneko –1990 ekitaldiari buruz– gomendioen betetze maila.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Kontuen Ganbarak, bere Jarduketa Programari jarraituz, Tuterako Udaleko eta haren erakunde autonomoetako 1996ko ekitaldiko fiskalizazio txostena burutu du.

Tuterako Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita du eta udalari eta erakunde autonomoei buruzko kontabilitate egoera bateratuak aurkezten ditu.

Dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta udalaren ondare-multzoak aztertzeari lotu zaie lana. Antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko alderdiak jorratu dira.

Hirigintzari dagokionez, gure lana Plan Orokorra betetzeari buruzko azterketa orokorrari lotu zaio, plana garatzeko jarduera zehatzak aztertu gabe.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipio eta arauei jarraituz burutu da, eta inguruabarrengatik egoki jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenean udalaren eta haren erakunde autonomoen (Uren Udal Batzarra eta Castel-Ruiz Kulturgunea) kontabilitate- eta administrazio-prozedurak eta oro har kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditugu.

Zelaiko lana 1997ko martxoa eta uztailan burutu zen.

Tuterako Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langile guztien laguntza eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu baitute.

IV. IRITZIA.

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Tuterako Udalaren eta haren erakunde autonomoen (Castel-Ruiz Kulturgunea eta Uren Udal Batzarra) 1996ko ekitaldiko gastu eta dirusarreraren aurrekontu-betetzearen egoera aztertu dugu.

Azterketan, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko Sektore Publikoaren Auditoretzaren Printzipio eta Arauak aplikatu ditugu.

Gure azterketatik, honako iritzi hau ondorioztatzen da.

IV.1. AURREKONTUAREN KITAPENARI DAGOKIONEAN.

Gure ustez, 1996ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren kitapenak ongi islatzen ditu, alde azpimarragarrietan, fiskalizaturiko ekitaldian egindako jarduerak eta 1996ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera. Kitapena indarreko legediari jarraituz prestatu da.

IV.2. ONDARE EGOERAREN AZALPENA.

Egoerari buruzko balantze bateratuak ongi islatzen du Tuterako Udalaren egoera ekonomikoa eta ondarezkhoa, salbu ibilgetuaren balorazioari dagokionean, izan ere batez ere 1994ko katasstroaren balorazioan oinarritu baita; gaur egun berraztertzen ari da.

IV.3. LEGEZKOTASUNA.

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezkotasun printzipioaren arabera garatu da.

IV.4. KONTUEN GANBARAREN AURREKO TXOSTENEN GOMENDIOEN JARRAIPENA.

Oro har, esan daiteke 1990 urteari buruzko txostenean agertzen ziren administrazio eta kontabilitate mailako gomendio nagusiak eta egiteko zegoen presa handieneko gomendioari jarraituz 1997 urtean dirubilketa eta diruzaintzaren kudeaketarako sistema informatiko berria ezarri da.

IV.5. EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA.

Tuterako Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioa larria da, izan ere aurrezki gordina (dirusarreraren eta ohiko gastuen arteko aldea) ez baita gauza finantza-kargari aurre egiteko, baita merkaturiko gora-beherrengatik interes-tasak nabarmen jaitsi diren urteetan ere. Horrek sortarazi du azken urte hauetan aurrezki garbi negatiboak gora jotzea, zorpetzea gero eta handiagoa izatea eta gero eta arazo handiagoak izatea ordainketak epe naturaletan burutzeko.

Egoera honek zenbait presako neurri hartzea eskatzen du, izan ere aurrekontu-oreka bermatzeko, lehenbizi, eta egoera finantza-egoera normal batera itzultzeko.

Laburbilduz eta ondorio orokor gisa, esan daiteke Tuterako Udalak egoki kudeatzen dituela

bere aurrekontuak ikuspuntu administratibotik, baina bideragarritasun edo kudeaketa ekonomiko plan bat lehen bait lehen onestea behar du, hain zuzen ere finantza-egoera larri hori saneatu ahal izateko.

V. FINANTZA-EGOERAK.

Ondotik Tuterako Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontabilitate egoera bateratuak eta aurrekontu-betetzea eman ditugu.

V.I. AURREKONTU BATERATUAREN KITAPENA. 1996KO EKITALDIA

(milioi pezetakotan)

Dirusarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko eskubideak	Kitaturiko dirubilketak	Kobratzeko dagoena	Betetze-egoera
1-Zuzeneko zergak	581	0	581	559	485	74	-22
2-Zeharkako zergak	241	0	241	222	173	49	-19
3-Tasak eta bestelako dirusarrerak	706	11	717	725	605	120	8
4-Ohiko transferentziak	1.350	71	1.422	1.095	995	101	-326
5-Ondare dirusarrerak eta herrilurretakoak	154	0	154	151	145	6	-3
6-Inbertsio errealak besterenganatzea	55	0	55	24	24	0	-31
7-Kapital transferentziak eta beste	0	498	498	189	164	26	-308
8-Finantza-aktiboak	0	114	114	0	0	0	-114
9-Finantza-pasiboak	566	397	963	370	370	0	-593
Dirusarrerak, guztira	3.654	1.091	4.745	3.335	2.960	376	-1409

(milioi pezetakotan)

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko betebeharrak	Kitaturiko ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetze-egoera
1-Langileen gastuak	1.372	59	1.431	1.393	1.378	15	-38
2-Ohiko ondasun eta zerbitzuetako gastuak	1.059	33	1.092	938	656	312	-124
3-Finantza-gastuak	214	-33	180	153	141	12	-27
4-Ohiko transferentziak	171	22	193	167	84	83	-27
6-Inbertsio errealak	603	1.008	1611	865	458	407	-746
7-Kapital transferentziak	35	-17	18	16	0		
8-Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0		
9-Finantza-pasiboak	201	-2	199	198	192	5	-2
Gastuak, guztira	3.654	1.071	4.725	3.759	2.909	850	-966

Egoerari buruzko balantze bateratua 96-12-31n

AKTIBOIA

Izena	Zenbatekoa (milakotan)	
IBILGETUA	13.957.686	
IBILGETU MATERIALA	10.456.781	
Lurra eta ondasun naturalak		1.341.467
Eraikuntzak	5.366.811	
Makineria, instalazioak eta tresneria		91.343
Garraio-elementuak	82.576	
Altzariak	64.933	
Informazio prozesuetarako ekipoa		74.859
Bestelako ibilgetu materiala		34.477
Instalazio konplexu berezituak		3.816.278
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua		-415.962
IBILGETU EZ-MATERIALA	44.060	
Bestelako ibilgetu ez-materiala		46.636
Ibilgetu ez-materialaren amortizazio metatua		-2.576
AZPIEGITURA ETA ERABILERA OROKORREN ONDASUNETAKO INBERTSIOAK	846.914	
Lurra eta ondasun naturalak		791.709
Ondare historikoa		55.205
AZPIEGITURA ETA HERRI-ONDASUNETAKO INBERTSIOAK	2.608.759	
Lurra eta herri-ondasunak		2.452.700
Azpiegitura eta herri-ondasunak	156.059	
FINANTZA-IBILGETUA	1.172	
Obligazioak, bonoak eta errenta finkoko bestelako inbertsioak		92
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak		1.080
Epe luzeko fidantzak		0
GASTU AMORTIZAGARRIAK	30.693	30.693
Gastu amortizagarriak		30.693
IZAKINAK	19.741	19.741
Merkatugaiak		261
Material anitzak		19.479
ZORDUNAK	669.110	669.110
Aitorturiko eskubideengatiko zordunak. Urteko aurrekontua.		342.361
Aitorturiko eskubideengatiko zordunak. Itxitako aurrekontuak		291.786
Gizarte Segurantzak, zorduna		125
Ogasun Publikoa, jasandako BEZa		593
Ogasun Publikoa, zorduna BEZa dela-eta		24.990
Eratutako gordailuak		34
Emandako diru-aurrerakinak eta maileguak		4.131
Zordunak BEZa dela eta		5.090
FINANTZA-KONTUAK	73.327	73.327
Kutxa		4.875
Banku eta kreditu erakundeak. Erabiltzeko kontuak		48.761
Banku eta kreditu erakundeak. Dirubiltzeko kontu itxiak		17.896
Banku eta kreditu erakundeak. Finantza-kontuak		1.796
ALDIZKOTASUNEKO DOIKETAK (AKTIBOIA)	15.830	15.830
Atzeratutako kobrantzak		15.830
APLIKATZEKO DAUDEN EMAITZAK	45.186	45.186
Aplikatzeko dauden emaitzak		45.186
Aktiboa, guztira	14.811.573	
AKTIBOKO KONTUAK	589.298	589.298
Gordailuko baloreak		577.836
Garantiako dokumentuak, luzapenak eta zatikatzeak		3.240
Diruzaintza: jasotako baloreak		8.223
Aktiboko kontuak, guztira	589.298	

PASIBOA

Izena	Zenbatekoa (milakotan)	
ONDAREA ETA ERRESERBAK	9.082.684	9.082.684
Ondarea		9.082.684
KAPITALEKO DIRULAGUNTZAK	1.924.281	1.924.281
Estatukoak		1.001.046
Erkidego autonomoetakoak		922.599
Enpresa pribatuetakoak		636
EPE LUZEKO ZORRAK	2.577.715	2.577.715
Epe luzeko maileguak, sektore publikoak		962.354
Epe luzeko maileguak, Barnekoak		1.566.214
Epe luzeko fidantzak		49.147
EPE LABURREKO ZORRAK	1.110.855	1.110.855
Aitorturiko obligazioen hartzekodunak. Urteko aurrekontua		169.012
Aitorturiko obligazioen hartzekodunak. Aurreko aurrekontuak		29.937
Agindutako ordainketengatiko hartzekodunak. Urteko aurrekontua		682.771
Agindutako ordainketengatiko hartzekodunak. Aurreko aurrekontuak		57.584
Dirusarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak		1.346
Dirusarrerak kitatzeko dituzten ente publikoak		23.018
Ogasun publikoa, hartzekoduna zerga-kontzeptuengatik		44.277
Gizarte Segurantza, hartzekoduna		2.634
Ogasun publikoa, jasanarazitako BEZa		1.821
Jasotako gordailuak		15
Ordainketen formalizazioa, aurrekontuaz kanpokoak		576
Hartzekodunak, BEZa dela eta		17.051
Aurrekontuez kanpoko bestelako hartzekodunak		52.704
Epe laburreko fidantzak		24.845
Probetxamendu unitateengatiko fidantzak		1.429
Epe laburrean jasotako gordailuak		1.600
Aplikatzeko dauden dirusarrerak		236
EKITALDIKO EMAITZAK	110.252	110.252
Ekitaldiko emaitzak		110.252
ALDIZKOTASUNEN DOIKETAK	5.786	5.786
Atzeratutako gastuak		323
Aurreratutako kobrantzak		5.462
Pasiboa, guztira	14.811.573	
PASIBOKO KONTUAK 589.298	589.298	
Baloreen gordailugileak		577.836
Luzaturiko eta zatituriko garantiako agirien gordailugileak		3.240
Jasoagirietan gauzaturiko eskubideak		8.223
Pasiboko kontuak, guztira	589.298	

1996 ekitaldiko emaitza bateratuak

ZOR		HARTZEKO	
Azalpena	Zenbatekoa	Azalpena	Zenbatekoa
Hasierako izakinak	20	Amaierako izakinak	20
Erosketak	2	Salmentak	591
Langile gastuak	1.196	Ondasunen eta enpresaren errenta	236
Finantza gastuak	150	Produk. eta inportaz. loturiko zergak	636
Zergak	0,8	Errentaren gaineko ohiko zergak	125
Kanpoko lanak, hornidurak eta zerbitzuak	965	Ustiaketarako dirulaguntzak	4
Gizarte prestazioak	202	Ohiko transferentziak	1.142
Ustiaketarako dirulaguntzak	0	Kapitalaren gaineko zergak	50
Ohiko transferentziak	167	Bestelako dirusarrerak	35
Kapital transferentziak	0	Bere xedeari aplikaturiko probisioak	
Amortizazioen dotazioak eta aurreikuspenak	60		
Ustiaketaren onurak (saldo hartzekoduna)	77	Ustiaketako galerak	
Guztira	2.839	Guztira	2.839

ZOR		HARTZEKO	
Azalpena	Zenbatekoa	Azalpena	Zenbatekoa
Ekitaldiko ohiko emaitzak (saldo zorduna)	0	Ekitaldiko ohiko emaitzak (s. h.)	77
Aparteko emaitzak (saldo zorduna)	2	Aparteko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0
Baloreen karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0	Baloreen karteraren emaitzak (s.h.)	0
Itxitako aurrek. eskub. eta obligaz. aldak. (s.z.)	3	Itxitako aurrek. eskub. eta obligaz. aldak. (s.h.)	38
Guztizkoaren onura garbiak (s. h.)	110	Guztizkoaren galera garbiak (saldo zorduna)	
Guztira	115	Guztira	115

Tuterako Udala - 1996ko diruzaintzako gerakinaren egoera bateratua

Kodea	Kontuak	Zenbatekoa (milioikotan)
1	(+) EKITALDI BUKAERAN KOBRATZEKO DAUDEN ZORDUNAK	612
	Dirusarrerren aurrekontukoak. Urteko aurrekontua	358
	Dirusarrerren aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	292
	Beste erakunde publikoetako baliabideetakoak	0
	Aurrekontuez kanpoko bestelako eragiketetakoak	35
	Ken kobratzeko zailak diren saldoak	-72
	Ken aplikatzeko dauden buruturiko dirusarrerak	-0,2
2	(-) EKITALDI BUKAERAN ORDAINTZEKO DAUDEN HARTZEK.	1.111
	Gastuen aurrekontukoak. Urteko aurrekontua	852
	Gastuen aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	88
	Dirusarrerren aurrekontukoak	1
	Beste erakunde publikoetako baliabideetakoak	23
	Aurrekontuaz kanpoko eragiketetakoak	147
	Ken aplikatzeko dauden buruturiko ordainketak	
3	(+) DIRUZAINZAKO EKITALDI BUKAERAKO FONDO LIKIDOAK	73
4	AURREZKI KUTXEK EDO KREDITU ENTITATEEK FINANTZIA-TURIKO GASTUEK UKITUTAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	-159
5	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA (1+2+3+4)	-266
	DIRUZAINZAKO GERAKINA, GUZTIRA (1+2+3)(4+5)	-425 -425

Tuterako Udala - Aurrekontu-betetzearen egoera

(milioikotan)

Dirusarrerren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko eskubideak	Kitaturiko dirubilketak	Kobratzeko dagoena	Betetze-egoera
1-Zuzeneko zergak	581	0	581	559	485	74	-22
2-Zeharkako zergak	241	0	241	222	173	49	-19
3-Tasak eta bestelako dirusarrerak	402	2	403	422	360	62	19
4-Ohiko transferentziak	1.349	63	1.412	1.089	993	96	-323
5-Ondare dirusarrerak eta herrilurretakoak	151	0	151	149	143	6	-2
6-Inbertsio errealak besterenganatzea	55	0	55	24	24	0	-32
7-Kapital transferentziak eta beste	0	162	162	62	62	0	-99
8-Finantza-aktiboak	0	114	114	0	0	0	-114
9-Finantza-pasiboak	566	330	896	370	370	0	-526
Dirusarrerak, guztira	3.345	671	4.015	2.897	2.611	287	-1.118

(milioikotan)

Gastuen kapitulua (Ekonomikoa)	Hasierako aurreikuspena	alda- ketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko betebeharrak	Kitaturiko ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetze- egoera
1-Langileen gastuak	1.210	57	1.267	1.239	1.227	12	-28
2-Ohiko ondasun eta zerbitzuetako gast.	857	18	875	797	522	275	-78
3-Finantza-gastuak	194	-33	161	143	131	12	-18
4-Ohiko transferentziak	280	22	302	270	168	102	-32
6-Inbertsio errealak	586	625	1.211	719	318	401	-492
7-Kapital transferentziak	35	-17	18	16	0	16	-2
8-Finantza aktiboak	0	0	0	0	0	0	0
9-Finantza-pasiboak	182	-2	181	181	175	5	-0,07
Gastuak, guztira	3.345	671	4.015	3.365	2.541	824	-651

Tuterako Uren Batzarra - Aurrekontu-betetzearen egoera

(milioikotan)

Dirusarreraren kapitulua	Hasierako aurreikuspena	alda- ketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko eskubideak	Kitaturiko dirubilketak	Kobratzeko dagoena	Betetze- egoera
3-Tasak eta bestelako dirusarrerak	286	0	286	277	222	55	9
4-Ohiko transferentziak	18	4	22	16	5	11	6
5-Ondare dirusarrerak eta herrilurretakoak	4	0	4	2	2	0	1
6-Inbertsio errealak besterenganatzea	0,3	0	0,3	0	0	0	0,3
7-Transf. eta beste dirusar. (Gast., kapital)	0	336	336	127	101	26	209
9-Finantza-pasiboak	0	67	67	0	0	0	67
Guztira Ingresos	307	407	714	422	330	92	292

(milioikotan)

Gastuen kapitulua (Ekonomikoa)	Hasierako aurreikuspena	alda- ketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko betebeharrak	Kitaturiko ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetze- egoera
1-Langileen gastuak	95	4	99	92	89	3	7
2-Ohiko ondasun eta zerbitzuetako gast.	160	0	160	116	87	29	44
3-Finantza-gastuak	20	0	20	10	10	0	10
4-Ohiko transferentziak	0,9	0	0,9	0,1	0,1	0	0,8
6-Inbertsio errealak	14	383	396	143	138	5	253
9-Finantza-pasiboak	18	0	18	17	17	0	1
Gastuak, guztira	307	387	694	378	342	37	315,8

Castel-Ruiz Kulturgunea - Aurrekontu-betetzearen egoera

(milioikotan)

Dirusarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko eskubideak	Kitaturiko dirubilketak	Kobratzeko dagoena	Betetze-egoera
3-Tasak eta bestelako dirusarrerak	19	9	28	26	23	3	-2
4-Ohiko transferentziak	117	4	121	117	103	14	-5
5-Ondare dirusarrerak eta herrilurretakoak	0,4	0	0,4	0,1	0,1	0	-0,2
Dirusarrerak, guztira	136	13	150	143	126	17	-7

(milioikotan)

Gastuen kapituluak (Ekonomikoa)	Hasierako aurreikuspena	aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko betebeharrak	Kitaturiko ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetze-egoera
1-Langileen gastuak	74	-2	72	70	69	1	-3
2-Ohiko ondasun eta zerbitzuetako gastuak	51	16	67	65	54	11	-2
4-Ohiko transferentziak	7	0	7	6	5	0,6	-1
6-Inbertsio errealak	3	0	3	2	2	0,5	-1
Gastuak, guztira	136	13	150	143	129	14	-7

VI. AZTERKETA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian ondorioak eta udalaren antolaketa eta barne kontrolerako sistema hobetzeko, horrela kudeaketan hobekuntza lortuz, egoki iruditzen zaizkigun gomendio orokorrak eman ditugu.

VI.1. AURREKONTUA BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK.

IV Atalean Iritziari buruz esandakoa kontutan hartuz, aurrekontua betetzetik eratortzen diren honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

Tuterako Udalak 1995eko abenduaren 29an onetsi zuen 1996ko ekitaldiko aurrekontua. Aurrekontuaren kitapena Osoko Bilkurak onetsi zuen 1997ko ekainaren 27an, arauak ezarritako izapideak egin ondoren,

1996ko aurrekontuko dirusarreraren betetze-maila ehuneko 70ekoa izan zen eta gastuen betetze-maila ehuneko 80koa. Maila horien arazoia inbertsioen betetze-maila baxuan bilatu behar da, gastuei dagokienez, kapital transferentzien ondorioz, eta finantza-pasiboen aldatzetan, dirusarrereki dagokienez.

Betetze-egoera bateratuak 423 milioi pezetako defizita agertzen du, alegia gastuan hitzarturiko 3.759 milioi pezeta eta dirusarreretan aurreikusitako 3.335 milioi pezetaren arteko aldea. Finantzia-zioan gertaturiko desbideraketak eta dirusarreraren aldizkotasuna aintzat hartzen baditugu, -105

milioi pezetako aurrekontu-emaizta doitua lortzen da.

Gastuen kapituluetan, langileei dagokiena da garrantzitsuena: 1.393 milioi pezeta egiten ditu, alegia aitorturiko obligazioen ehuneko 37; ondotik ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketak datoz, ehuneko 26 eta 23 hurrenez hurren.

Dirusarreraren kapituluetan, ohiko transferentziei buruzkoa da garrantzitsuena: 1.095 milioi pezeta, alegia, aitorturiko eskubideen ehuneko 33; ondotik zuzeneko zergei buruzkoa dator, ehuneko 17 egiten duena.

Udalaren aurrekontu-betetzera joz gero (era-kunde autonomoak alde batera utzita), udalak 467 milioi pezetako defizita agertzen du, alegia, dirusarreretan aitorturiko 2.897 milioi pezetaren eta gatuetan hitzarturiko 3.365 milioi pezetaren arteko aldea. Doitutako emaitzak (-143) milioi pezeta ematen du. Bai gastuetan, bai dirusarreretan betetze maila handiena duten kapituluak bat datoz kitapen bateratuko datuekin.

Aurrekontu-kitapena kode funtzional eta ekonomikoen arabera burutzen da. Tuterako Udalak iritsi duen jarduera bolumena aintzat hartuz gero, *gure gomendioa da aurrekontuaren lanketari eta kitapenari ekitea egindako jarduerak baloratzeko teknikaren bat erabiliz, hain zuzen ere udal jardueraren eraginkortasuna eta ekonomia neurtzeko. Horretarako helburuak eta adierazleak ezarri beharko lirakeke.*

VI.2. KONTINGENTZIAK

Lan hau burutzeko egunean, udalak 63 administrazioarekiko auzibideko errekurtsu zituen, auzitaratu gisa. Errekurtsu horiek ondoko gaitan sailka daitezke:

	Zenbat
Ogasuna	37
Hirigintza	14
Langileria	5
Industria	3
Udaltzaingoa	2
Zerbitzu zentralizatuak	1
Mendiak	1

Dituzten ezaugarriengatik edo kopuruarengatik ondokoak azpimarra daitezke:

- Ogasunarekin zerikusia duten auzietatik gehienak tasen kitapenari dagozkio, bereziki publizitate tasari. Horiekin batera Osoko Bilkurako erabakien aurkako beste bi aipa daitezke, hain zuzen ere "orokorrean obrak egiteko eta bestelako hirigintza jardueretarako lizentziak emateko tasak arautzen dituen ordenantza fiskaleko tarifak" berresten dituzten erabakien aurka.

- Hirigintza alorrekoen artean, HAPOn aurka jarritako errekurtsua aipa daiteke; baita eraikuntzen gaineko (EIOZ) zergaren ordainarazpen aurka jarritako zenbait errekurtsu eta aparkaleku publiko bat eraiki eta ustiatzeko administrazio kontzesioari buruzko ebazpena ukatzearen aurka jarritako errekurtsu bat ere; azken horretan, 96,5 milioi pezetako kalteordainak eskatzen dira.

Gaur den egunean ezin dira zehaztu udalarentzat errekurtsu horiek ekar ditzaketen ondorio ekonomikoak.

Beste aldetik, zazpi kasutan udala da auzitara jo duena. Horien artean, bat da azpimarragarriena, hain zuzen ere 1995 ekitaldiko Nafarroako Zergetan Partehartzeko Fondoaren kargura udalek eta kontzejuek ohiko transferentzien bidez eskuratuko dituzten zenbatekoak behin betiko esleitzen dituen Foru Aginduaren aurka aurkeztutakoa.

VI.3. EGOERA EKONOMIKOA 1996KO ABENDUAREN 31N.

Tuterako Udalaren egoera ekonomikoak ondoko ezaugarriak izan ditu azken urte hauetan:

- Zorra etengabe hazi da.
- Azken aurrekontu-kitapenetan aurrezki garbi negatiboak izan dira.
- Diruzaintzako gerakin negatiboa dago.
- Diruzaintzan dauden tira-biren ondorio praktikoa da atzerapen handia dagoela ordaintzeko aginduak emateko orduan.

Logikoaenez, udaleko ekonomiaren alorreko arduradunak egoera horretaz konturatu eta zenbait txosten egin dituzte gai horri buruz, bai egoerari, bai har daitezkeen neurriei dagokienean.

Horrela azterlan horietako datuak hartuta, ondoko koadroetan eman da adierazleei buruzko laburpen bat, ekonomi egoeraren balorazioa egiteko bidea ematen diguna.

Tuterako Udala

	1992ko ekitaldia	1993ko ekitaldia	1994ko ekitaldia	1995eko ekitaldia	1996ko ekitaldia
Ohiko dirusarrerak	1.817.892.013	1.956.275.523	2.236.447.399	2.254.012.982	2.441.293.353
I, II eta IV. kapituluetakoko gastuak	1.719.657.071	1.835.108.374	2.036.867.291	2.060.584.719	2.306.596.068
Aurrezki gordina	98.234.942	121.167.149	199.580.108	193.428.263	134.697.285
Finantza gastuak	179.546.622	262.949.700	199.396.918	278.276.693	323.521.197
Aurrezki garbia	-81.311.680	-141.782.551	183.190	-84.848.430	-188.823.912
Zorpetze maila	%9,88	%13,44	%8,92	%12,35	%13,25
Zorpetzearen muga	%5,40	%6,19	%8,92	%8,58	%5,52
Eskubideko zenbat biztanle	26.528	27.031	27.303	27.562	26.857
Ohiko gastuak biztanle bakoitzeko	71.592	77.617	81.905	84.858	97.930
Zergen bidezko dirusar. biztanle bak.	37.071	39.491	48.225	42.414	44.808
Ohiko dirusarrerak biztanle bakoitzeko	68.527	72.372	81.912	81.780	90.900

Informazio iturria: Tuterako Udala

Zor biziaren bilakaera

Ekitaldia	Zorra XII-31n	Gehikuntza
1992	1.762.792.490	
1993	1.756.486.198	-6.306.292
1994	2.476.401.310	719.915.112
1995	2.601.222.577	124.821.267
1996	2.882.271.542*	281.048.965

* 96-12-31n formalizatu gabe dagoen zorra ere sartu da

Informazio iturria: Tuterako Udala

Gainera adierazi behar da diruzaintzako gerakin bateratuaren egoerak ematen duen saldoak, udalak berak burutuak, (-425) milioi pezeta egiten dituela (V. izenburua) eta udalarenak soilik (-569) milioi pezeta egiten dituela; horietatik (-159) milioi ukituriko finantziariozko gastuei dagozkie eta (-420) gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinari dagozkie.

Datu horiek aztertuta, esan daiteke oraingo egoeran, aparteko dirusarrerak sartzan ez badira (ondarea saltzea, hirigintza-probetxamenduko unitateak saltzea eta abar), Tuterako Udalak bideragarritasun plan estua ezarri beharko duela eta plana betetzeari buruzko aldizkako kontrola ere bai, hain zuzen ere zuzentzeko behar diren neurriak aplikatu ahal izateko.

Gure ustez, plan hori egiteak ondoko baldintzak eskatzen ditu:

- Gastuaren egungo lerroei buruzko azterketa sakona, zein murriztu daitezkeen ikusi ahal izateko.

- Dirusarrerei buruzko azterlana, horiek nola handitu ikertu ahal izateko, bai tarifak edo kuotak handiagotuz, bai tarifa berriak aplikatuz edo kudeaketa hobetuz.

- Zenbait zerbitzu finantziatzeko udalak izan dezakeen gehieneko muga zehaztea.

- Finantza-karga gutxiagotzeko aukera aztertzea, bai tasak jaitsiaraziz bai amortizazio epeak gehituz.

Neurri horien xedea da aurrezki garbi positiboak lortzea, baina egin daitezkeen inbertsioei buruzko plangintza bat ere ezarri beharko litzateke.

Egun ditugun datuekin, gure iritzia da finantzia-ziorako zorra handitzea eskatzen ez duten inbertsioak egin daitezkeela soilik. Aldi berean, inbertsio bat onesteak eskatzen du inbertsio hori abian jartzeak udalaren ohiko gastuetan ekar dezakeena ere baloratzea.

Zalantzarik ez dago, halako ezaugarriak dituen plan bat ezartzeak eskatzen du lehenbizi talde politikoen adostasunik handiena, hain zuzen ere legegintzaldi bat baino gehiago iraun behar duela. Bigarrenik, uste dugu komenigarria dela Nafarroako Gobernuaren ere, egoki jotzen den moduan, plan horretan sartzea.

VI.4. KONTUEN GANBARAKO AZKEN TXOSTENEN GOMENDIOEN JARRAIPENA.

Oro har, esan daiteke nahiko ongi bete direla aurreko txostenean emandako gomendioak. Ildo horretatik, azpimarratzekoa da hobekuntza nabarmenak izan direla administrazio-prozesuetan eta udalaren informatizazioan.

Hobetzeko gelditzen diren gorabeheren artean, honako lehentasunak ezarri behar direla uste dugu:

- Udalaren, Hondakinen Mankomunitatearen eta Uren Udal Batzarraren arteko harremanei ekitea, izan ere erakunde bakoitzak dirusarreraren kudeaketan izanen duen erantzukizuna argitzeko.

- Dirubilletaren eta haren kontabilizazioaren kudeaketa hobetzea, kobrantzak beren zerga-kontzeptuei esleitu ahal izateko eta kontabilitateak uneoro ez bakarri diruzaintzaren saldo orokorra erakusteko, baizik eta baita ere banku-kontu bakoitzaren saldo partziala.

- Langileen kudeaketa erraztea, unitate organikoaren arteko komunikazioa hobetuz langileen kudeaketa errazteko, akatsak gutxiagotzeko eta akats horiek zuzendu ahal izateko.

- Zerbitzuak emateko kontratuen gaineko kontrol-plana ezartzea.

VI.5. BESTELAKO IRUZKIN OROKORRAK

- Tuterako Udalak ezarrita du Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra.

- Udalaren eta erakunde autonomoen (Uren Udal Batzarra eta Castel-Ruiz Kulturgunea) kontabilitate egoera bateratuak aurkezten ditu.

- Baditu aurrekontu-betetzeari buruzko oinarriak eta zerga-dirusarreraren kudeaketa eta bilketa-rako ordenantzak onetsi ditu.

- Behar ziren azterlanak egin ditu tasa eta prezio publikoen zenbatekoa ezartzeko, Nafarroako

Toki Ogasunei buruzko Foru legearen xedapen iragankorretako lehenbizikoari jarraituz.

- 1996an erabilitako diruzaintzako programak ez zuen biderik ematen kontzeptu bakoitzari zerga-figura bat baino gehiago biltzen zituzten ordainagiriak egozteko. Urtean zehar eginiko kontabilizazioan mugimenduak banku-kontu bakar bati egotzi zaizkio eta urte bukaeran banku-kontu guztien saldoa doitzen da. Kudeaketa-alderdi horiek aldatu eginen dira 1997an programa informatiko berria ezartzearekin.

- Diruzaintzako zenbaketa ekitaldiaren bukaeran egiten da eta lan zaila izaten da. Hori dela eta, *gure gomendioa da kutxako zenbaketak maiz egitea eta bankuko aldizkako adosteak burutzea.*

- Langileen egoeren aldaketek (altak, bajak, gaisoaldiak...), oraingo sistemarekin, berekin ekartzen dute nominen kontabilizazioan eta kudeaketan eskuzko eragiketa batzuk egin behar izatea; horrek bidea ematen du erregistro ezberdinetan akatsak eta desdoikuntza txikiak izateko.

Gure gomendioa da, ahal dela, eskuzko eragiketak saihestea, huts egiteko arriskua txikiagoa izan dadin.

- Udalak badu 1992an eginiko inbentario bat eta inbentario hori aztertzeke prozesuari ekin dio; hori dela eta, balantzean agertzen den aktiboa, 1994ko katastroko baloreei dagokiena, doitu egin behar dira inbentarioaren berrazterketaren emaitza direnekin.

VI.6. INTERESEKO ALOR BEREZIAK

VI.6.1. Langileak

Hauek dira 1996 ekitaldiko langileen kapituluaren banaketa:

	(milakotan)
	Aitorturiko obligazioak
Goi karguak	5.865
Kabineteetako aldi baterako langileak	15.553
Funtzionarioak	530.895
Lan-itunpeko langileak	270.749
Gizarte alorreko kostu eta gastuak	416.274
Guztira	1.239.336

Langileen gastuen kapituluaren aitorturiko obligazioek aitorturiko obligazio guztien ehuneko 37 egiten dute, hau da, joan den urtearen aldera ehuneko 14ko handitzea izan da; gehikuntza horren arrazoi garrantzitsuena da aldi baterako kontratu-

peko langileen gastuak handitu egin direla, batez ere tailer-eskolan eta hirigintzaren alorrean.

Ondoko koadroan udalaren organigrama azaldu dugu. Honela banatzen da:

	Guztira	Metatua
Funtzionarioak	171	
Lan-itonpeko lang. fink.	34	205
Aldi baterako langileak	4	
Lanpostu betegabeak	17	226
Zerbitzu bereziak*	-7	219

* Zazpi pertsona kendu dira, aurrekoetan sartu baina Udalean edo beste administrazioetan lanpostua gordeta dutenak.

Tuterako Udalak bere montepioa du; 1996ko ekitaldian 201 milioi pezetako pentsioak ordaindu ditu. Hona hemen pentsio horien banaketa:

(milakotan)			
Kontzeptua	Zenbat	Zenbatekoa	Batez-besteko Zenbatekoa
Jubilazioa	54	110.063	2.038
Alarguntasuna	48	79.703	1.660
Umezurtza	13	11.144	857
Besterik	4	265	66
Guztira	119	201.175	

Egindako azterketa lanaren ondorioz, oro har, ondoko gaiak jarri dira agerian:

- Alor honetako kudeaketa indarra duten araei jarraituz egiten da.

- Kontabilizazioak modu egokian islatzen ditu egin diren gastuak; hala ere, konturatu gara badaudela alde txiki garrantzirik gabeko batzuk erregistro ezberdinen arteko zenbati kontzeptu aldagarrietan.

Hona gure gomendioak:

Alor ezberdinek hilabetean behin parteak finkatutako eguna baino lehen emateko ezarri den prozedura betetzea, kudeaketa azkarragoa eta akatsik gabekoa lortzeko.

Parte horiek behar bezala beteta egotea eta arduradunaren sinadura dutela.

Komunikazio gehiago egotea ukituriko organoen artean, huts egiteko arriskua gutxiagotzeko eta hutsik gertatuz gero horiek erraz zuzendu ahal izateko.

VI.6.2 Ohiko ondasunen eta zerbitzuen erosketak

Zerbitzuengatik erosketek eta gastuek 797 milioi pezetako betetzea egiten dute, alegia, bete-

tzearen ehuneko 24. Aurreko ekitaldiaren aldera, ehuneko 8 handitu dira.

Hona hemen haiei buruzko azalpen banaketa:

(milakotan)	
Kontzeptua	Zenbatekoak
Errentamenduak	48
Konponketak eta mantenimendua	209.774
Materiala, hornidurak eta beste	569.442
Zerbitzua dela-eta emaniko kalteordaina	17.508
Guztira	796.772

Ondokoak dira kontusailik garrantzitsuenak:

(milioikotan)	
Kontzeptua	Zenbatekoak
Bideetako garbiketa	102
Argindarra	98
Eraikinen garbiketa	91
Inbentariatu ezin diren materialak erostea	56
Jarduera anitzak	51

Egindako azterketa ikusita, ondorio hauek atera ditugu:

- Oro har, aurrekontuaren oinarriak betetzen dira gastuaren izapidaketari eta baimentzeari dagokienez.

- Gastuen kontusail nagusiak kontratazioaren xede diren kontzeptuei dagozkie.

- Zenbait azterlan egin dira zerbitzu jarraituen kasuan hornidura- edo erosketa-kontratuak egitea komenigarria ote den aztertzeko.

- Ogasun Zinegotzigoan, badago "Ondarea, erosketak eta kontrataturiko zerbitzuak" izeneko alor bat, teoriarik udalaren erosketa guztiak egiteko ardura duena; hala ere zenbait alorrek beren erosketak egiten dituzte.

Ondoko kontratuen egiaztapenak egin ditugu: eraikinen garbiketa, argiteria publikoa, landare eta hazien hornidura, bideetako garbiketa, hiri garraioa eta udalaren obren kontratazioa.

Egindako azterketatik ondoko datu orokorrak atera ditugu:

- Urte anitzeko kontratuak dira.

- Udalean ez dago beti kontratuen betetzearen gaineko kontrolaren eta jarraipenaren erantzule bat. Batzuetan, uste izaten da esleipen hartzaile-

ak kezarik ez badu kontratua ongi betetzen ari dela.

- Bideetako garbiketari dagokionean, kanpoko enpresa bati enkargatu zizaion kontrata betetzea.

Kontratuan egindako aldaketak –alderdi berriak sartu eta abar– ahoz egin ziren. Hala ere, 1997ko ekainean, Gobernu Batzordearen erabakiz, enpresa esleipen hartzaileari kontratua zabalteko enkargatu egin zaio.

- Udal obren kontratazioan, obretako ohiko gastu gisa erregistratu dira ez mantenimenduari edo berritzeari dagozkion gastuak, baizik duten jatorriarengatik inbertsioen kapituluan sartu behar ziren gastu batzuk.

- Hiri garraioaren zerbitzuan enpresari eginiko auditoretzak jaso eta aztertu ziren.

- Auditoreek emandako datuetatik abiatuta, halako laburpen txiki bat egin dugu hiri garraioaren zerbitzuari buruzko datu nagusiak emanez:

Hiri-autobusen zerbitzua

Kontzeptua	92-93	93-94	94-95	95-96	95-96(*)	96-97ko aurrekont.
Zerbitzuaren kostua	37.482.152	45.141.915	44.251.303	46.594.301	51.256.062	48.985.204
Txartelengatiko dirubilketa	11.607.339	11.395.000	10.697.550	11.042.400	11.840.600	12.446.028
Udalaren ekarpena	28.874.813	33.746.915	33.553.753	35.551.901	39.415.462	36.539.176
Urteko bidai kopurua	258.057	254.070	236.238	246.748	264.584	264.584
Udalaren ekarpena bidai bak.	100,27	132,83	142,03	144,08	148,97	138,10

* Institutuan eta E.T.I.n D.B.H. ezarri eta zerbitzua zabalteko alokatutako autobus bat ere sartu dugu.

95-96 aldiko datu horietatik ondoko datua atera daiteke: eguneko 725 bidai egiten dira; batezbeste 180 pertsona funtzionatzen ari diren lau autobusetako bakoitzean.

Pertsona bakoitzak autobusa egunean behin erabiltzen duela hartuta, Tuterako biztanleen ehuneko 2,6k erabiltzen du.

Udalak 3,3 pezeta ematen ditu hiritarrak hiri garraioaren zerbitzua erabiltzeagatik zuzenean ordaintzen duen pezeta bakoitzeko.

Hona gure gomendioak:

Zehaztea "Ondare, erosketak eta kontrataturiko zerbitzuak" izeneko alorrak udalaren erosketak guztiak zentralizatu behar ote dituen.

Dauden kontratu garrantzitsuenetarako edo etorkizunean egin daitezkeenetarako, ezartzea nor izanen den kontrolaren erantzulea eta zein izanen den kontrol horren norainokoa. Horrek

garrantzi handiagoa hartzen du administrazio publikoek gero eta lan gehiago azpikontratatzeko dituzten garai batean, zerbitzuaren azken erantzukizuna Administrazioarena izanda ere.

Idatziz ezartzea kontratuaren egiten diren aldaketak.

Zenbait irizpide ezartzea obrak ohiko gastu edo inbertsio gastu gisa kontabilizatzeko.

Udalak ematen dituen zerbitzuen kostua aztertu eta udalaz kanpoko finantziario handiagoa lortzeko modua aztertzea; bestela, zerbitzuak berregituratzea.

VI.6.3. Interesak eta finantza-pasiboen aldaketak

Zorrek zenbait gastu sortzen ditu, 3. (finantza-gastuak) eta 9. kapituluan (zorren amortizazioa) bildu direnak.

Hona hemen haien azalpen banakatua:

Kodea	Kontzeptua	Behin betikoa	Aitorturiko obligazioak	Betetzearen ehuneko	Gutzizkoaren g. ehuneko
3	Finantza-gastuak, guztira	160.889.774	142.768.231	%88,74	%4,24
9	Finantza-pasiboak	180.821.261	180.752.966	%99,96	%5,37
	Maileguetako gastuak, guzt.	341.711.005	323.521.197	%94,68	%9,62
	96ko aurrekont. gastua, guzt.	4.015.233.239	3.364.707.350	%83,80	%100

Hau da, aurrekontu-betetzearen ehuneko 10aren jatorria finantza-eragiketetan dagoela.

Maileguetako korrituengatik gastuak maileguen xede diren kontzeptuen arabera sartu dira aurrekontuetan (kontusail bat mailegu bakoitzeko). Kapitulu honetako hasierako aurrekontua 188.989.744 pta.koa zen eta haren betetzeak 142.768.231 pta. egin ditu.

Aurreikusitakoaren eta betetakoaren artean aldea izatearen arrazoia, neurri batean, zera da: azken urte hauetan egindako mailegu itunduetan tasa aldagarriak kontratatu zirela, eta batzuetan aurreikusitakoaz beherago kitatu direla.

Aurreikusitakoaren eta betetakoaren arteko aldea ere handia izan da, MOPUK eta Riegos de Navarrak Valdetellas eta Montes del Cierzo alderdietako ureztatzeko sistemetan egin beharreko lanak finantziatzeko Nafarroako Gobernuak emandako maileguetan. Alde horren oinarria da udalak zenbateko batzuk aurreikusi zituela MOPUK ureztalurretarako ematen dituen maileguetarako, baina obra horiek egiteko baimena 1996 urtean jaso ez direnez eta mailegu horiek kobratzeko eskubidearen titularra nor den argi ez dagoenez, Estatuak Nafarroari eskumenak transferitu ondoren, maileguak ez dira gauzatu eta ez dira kitatu.

Hala eta guztiz ere, aurreikusitako aurrekontu oso egin ez bada ere, 1996 urteko betetzea aurreko urtekoarekin alderatuz gero, ikus daiteke ehuneko 28koa dela.

Gastuei buruzko 9. kapituluak maileguen amortizaziorako gastuak biltzen ditu, sektore publikoak eta sektore pribatuak jasotakoak. 1996an buruturiko zenbateko osoak 180.752.966 pta. egiten ditu, hau da, aurrekontuaren guztirako gastuaren ehuneko 5. Gastu hori ehuneko 8 igo da 1995 urtekoarekin alderatzen bada.

Sektore publikoko maileguen amortizazioarengatik ordaindurikoa 62.174.980 pta.koa da eta 118.577.986 pta.koa sektore pribaturako.

Tuterako Udalaren finantza-pasiboan azterken ikus daiteke 1996an entitate pribatuen finantza-pasiboek ehuneko 21 egin dutela gora eta sektore

publikoek ehuneko 6 behera. 1996ko finantzakarga 315.489.112 pta.koa izan da guztira; horrek esan nahi du ehuneko 13ko zorpetzea.

Bankuetan ordaindutako korrituen batezbesteko tasa ehuneko 8,9koa da. Pasiboen kasuan, ehuneko 5,9ko batezbesteko korritu-tasa da guztira (sektore publikoak emandako interesik gabeko diru-aurrerakinak daude). 1996 urtearen bukarean, birfinantziazio bat negoziatu zen banku-entitateekin, 1997ko hasieran formalizatu zena. Horrek 10 urteko luzapena ekartzen du amortizazio epeetan, korritu-tasa aldagarriak (mibor+zerbait) eta, kasu batzuetan, zor guztirako bi urtez ordaindu behar ez izatea. Birfinantziazio hori dela eta, 1997 urtean banku-entitateetako finantzakarga ehuneko 45 jaitsiko da eta ehuneko 29 finantza-pasiboen guztizkoak.

VI.6.4. Ohiko transferentziak eta kapital transferentziak.

Ohiko transferentziek 270 milioi pezetako betezea agertzen dute, hau da, guztizko betetzearen ehuneko 8. Hona haren azalpen banakatua:

(milakotan)	
Kontzeptua	Zenbatekoak
Erakunde autonomoi	110.583
Toki entitateei	81.039
Entitate pribatuei	5.414
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	73.451
Guztira	270.487

Aitorturiko obligazioetatik ehuneko 71 udalak parte hartzen duen entitate publikoentzako transferentzietan dagoen (Uren Batzarra, Castel-Ruiz Kulturgunea eta Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea), izan ere udalaren beraren eskumeneko zerbitzuak kudeatzen dituztenak.

Diru-ekarpenak aldizkako kuota batzuen bidez egiten dira; kuota horiek estatutuetan edo sinaturiko itunetan agertzen dira.

Erakunde pribatuei emaniko dirulaguntzak aurrekontu-betetzearen oinarrian orokorrean eza-

eritako arauen arabera ematen dira, eta batzuetan deialdi espezifikoan ezarritakoaren arabera.

Kapital transferentziek 16 milioi pezetako bete-tzea dute eta "Azucarera" industrialdeko Konpen-sazio Batzarrari ordainduriko kuotek sortu zuten ordainketak biltzen dituzte.

Katedrala argiztatzeko aurreikusitako kontusai-la (5.000.000 pezeta) ez zen kapitulu horretan bete, inbertsioen kapitulura aldatu zelako.

Hona gure gomendioak:

Egiten diren gastuak dagozkien kapituluetan kontabilizatzea. Zehazki, urbanizazio kuotak inbertsioen kapituluan eta estolden garbiketa ohiko ondasunen era zerbitzuen erosketako kapituluan.

VI.6.5. Inbertsioak.

Gastuen kapitulu honek 586 milioi pezetako hasierako aurrekontua du, baina 625 milioi pezeta-ko aurrekontu-aldaketak agertzen ditu; beraz, behin betiko aurrekontua 1.211 milioi pezetakoa da. Horietatik 719 milioi pezeta bete dira, hain zuzen ere ehuneko 59 kapituluko aurrekontuaren gainean eta ehuneko 21 guztira beterikoaren gainean.

Hona hemen inbertsioen azalpen banakatua:

Kontzeptua	(milioikotan)	Aitorturiko obligazioak
Erabilera orokorrerako inbertsio berria	556	
Zerbitzuen funtzionamendurako inbertsio berria	114	
Zerbitzuen funtzionamendurako birjarpeneko inbertsioa	9	
Ondarezko ondasunetan eginiko inbertsioa	40	
Guztira	719	

Beteriko zenbateko horrek ehuneko 40 egin du gora, aurreko urtekoarekin alderatuz gero.

Ondokoak izan dira beteriko inbertsio nagusiak –kapituluan guztira beterikoaren ehuneko 90 egi-ten dute–:

Kontzeptua	(Milioi (pezetakotan))
Lurrak (Casa de Misericordia)	135
Bide sistema orokorra	294
Prado pasealekuaren urbanizazioa	43
La Rúa kaleko etxesaila	79
San Juan ikastetxe publikoko gimnasioa	73
Gaztambide antzokia berritzea	22
Guztira	646

Obra horiek aztertuta, ondorio hauek atera ditugu:

- Osoko Bilkurak 1995ean erabaki zuen aho batez Casa de Misericordia izandakoari egoitza zaharra erostea. 1996an, lehenbiziko bi urtekoak ordaindu ziren, ordura arte ez baitzen eskritura publikoa egin.

Gaztambide antzokiaren kasuan, erosketa 1995ean egin zen; zeukan egoera ikusita, berritze lan garrantzitsua egin behar zen; hori dela eta, antzoki berri bat eraikitzea edo zaharra egokitzea planteatu zen. Azken horren alde egin zen azke-nean.

Egokitzapen obren munta eta udalaren finan-tza-egoera ikusira, funtzionamendurako funtsez-koak ziren obrak egitea erabaki zen.

- Oro har, eta aintzat hartzen bada bide siste-ma orokorraren obrari buruz aurrerago esaten dena, esan daiteke inbertsioak arrazoizkoak direla.

Hori dela eta, ondokoak adierazi nahi ditugu:

a) Espedienteek dokumentazio guztia biltzen dute, eta behar bezala artxibaturik daude.

b) Gastuak organo eskudunak onesten ditu, aurrekontu-betetzearen oinarrietan ezarri bezala.

c) Udalak administrazio baldintzen plegu oro-korra du, 1995ean onetsia, esleipen bakoitzerako eguneratzen dena.

d) Esleipenak publizitate eta lehiaren printzi-pioen arabera egiten dira.

e) Obra garrantzitsuenetarako esleipen siste-ma orokorra lehiaketa izaten da.

f) Behar diren obra-kontratuak gauzatzen dira.

Hala eta guztiz ere, antzeman dugu aldaketa-ren bat eta zerbitzuen hasieraren bat izan direla aurretik baimena izan gabe.

Halaber, esan behar da atzerapenak izaten direla obren entrega egiteko orduan eta kontratis-tei ordaintzeko garaian.

Egoera bereziena agertzen duen obra Bide Sistema Orokorrari dagokiona da; hona hemen haren azterketa:

- 661 milioi pezetako proiektu orokorretik abia-tuta, lehenbiziko aldia burutzeko prozesuari ekin zitzaion, 418 milioi pezetatan.

- Esleipena ehuneko 16,8ko bajarekin egin zen, alegia 348 milioi pezetatan.

- 1997an, Bide Sistema Orokorraren urbaniza-zio obretako proiektuan aldaketa bat egiteko pro-

posamena egin eta martxoaren 7ko udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen. Aldaketa 118 milioi pezetakoa zen; obrak hasierako obraren esleipen-hartzaile berari esleitu zitzaizkion.

- Osoko Bilkurak aldaketa hori, enpresari egini-ko esleipena eta ondokoa adierazten duen puntu bat onestea erabaki zuen: "Halaber, adierazi nahi dugu, erabaki hau hartu behar dela Administrazioak beharrezkoa izanez gero, aurreikusitako obran gertaturiko handitze horren ondorioen erantzukizuna eskatzea ezertan kaltetu gabe".

Handitze horrek hasierako aurreikuspenaren ehuneko 33,87 egiten du.

Erabaki hori hartu baino lehen ondoko txostenak aztertu ziren: Udaleko zerbitzu teknikoek egini-ko txosten teknikoak, bata 1997ko urtarrilaren 27koa eta bestea martxoaren 4koa; zuzendaritza fakultatiboak 1996ko abenduan egindakoa; kanpoko aholkularitzako enpresa batek 1997ko martxoan eginkoa.

Dokumentazio guztia aztertuta, ondoko datuak atera daitezke.

- Aldaketak horiek aurretik onesteko beharra ezartzen duen prozedurari jarraitu gabe egin dira; kontratazio organoari ere ez zaio zuzenean jakinarazi presako kontua zen edo atzerapena izateko modua ote zegoen.

- Udalak desbideraketan zenbateko dezente-koa ezagututa, obrak geldiarazi eta behar diren txostenak eskatu ditu erabakia hartu ahal izateko.

- Aldaketen zenbatekoaren funtsezko alderdi bat izan da euri uren eta ur beltzen saneamendu-sareari eman behar zaion tratamendua.

Ildo horretatik irizpide argiaren falta antzeman da; horrek sortarazi du jabeek arazoak izatea burutzen ari zen obrarekin eta irizpide ezberdinak izatea obrako zuzendaritzan, udal zerbitzuetan eta Uren Batzarrean.

- Osoko Bilkurak sortu den arazoa ezagutu baino lehen iragan den aldia, bero alternatiben arteko baten alde egiteko premia sortu diona, idazkariak 1997ko martxoaren 7ko txostenean azaltzen duen bezala. Alternatiba horietan baloratu beharrezkoa da zein den interes orokorrari kalte gutxiena egiten diona.

- Udalak hasiera eman zion balizko erantzukizunak aztertzeke espediente bati, halakorik balego; gure lana egiteko orduan, espediente hori bukatu gabe zegoen.

Horren guztiaren ondorioz, hona gure gomen-dioak:

Burutu beharreko obren ezaugarriak zehaztea haien esleipena eta proiektuen enkargua onetsi baino lehen.

Jabeek irizpide bakarria mantendu behar dute kontratistarekin. Hala ere onargarria da udal zerbitzuek (edo Uren Batzarreko zerbitzuek) eta zuzendaritza fakultatiboak mantendutako irizpideen artean ezberdintasunak izatea.

VI.6.6. Zergen bidezko dirusarrerak

1996ko aurrekontuaren kitapenari jarraituz, ondokoa da zergen bidezko dirusarrerak agertzen duten betetzea:

	(milakotan)	
Kontzeptua	Behin betiko aurreikuspena	Kitaturiko eskubideak
Zuzeneko zergak	581.000	559.336
Zeharkako zergak	241.100	221.843
Tasak eta bestelako dirusarrerak	403.481	422.225
Guztira	1.225.581	1.203.404

Zuzeneko zergetan ondokoak sartzen dira batez ere: hiri kontribuzioa, lizentzia fiskala eta lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga. Kapitulu honek udalaren dirusarreraren ehuneko 19 egiten du eta gutxiagotze nabarmena izan du aurreko urtearen aldera, ehuneko 3,5ekoa alegia, batez ere orubeen gaineko zerga desagertu izanari eta lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergen diru gutxiago bildu izanari zor zaizkienak.

Zeharkako zergen kapituluan, batez ere, zirkulazio zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) berria sartzen dira. Kapitulu horrek udalaren dirusarrerara guztien ehuneko 8 egiten du eta aurreko urteko dirubilketaren bikoi-tza da, batez ere EIOZa lehenbiziko aldiz sartu delako.

Tasei buruzko kapituluan 37 kontzeptu sartzen dira. Horien arteko garrantzitsuenak hauei dagozkie: zaborrak; estoldak; kirol jarduerak; herrilurrak ureztatzea; errail, habe eta kableak; obra lizentziak. Kapitulu honek udalaren dirusarreraren ehuneko 14 egiten du eta ehuneko 11ko jaitsiera izan du aurreko urtearen aldera, batez ere obra lizentziengatik dirusarrerak jaitsi direlako EIOZ zerga berria dela-eta.

Kontabilizaturiko prozedura eta zenbatekoak aztertu ondoren, ondokoak egiaztatu ahal izan ditugu:

Estolden gaineko tasa hiri kontribuzioarekin batera igortzen da; haren zenbatekoa katastroko

balioaren arabera finkatzen da. Biak batera kobratzen dira. Urte bukaeran kontzeptu bakoitzari dagozkion zenbatekoen ehunekoen estimazioa egiten da, baina zordunak ez dira kontzeptuka ezberdintzen. Beraz, guztirako saldoa zuzena bada ere, partzialetan ezberdintasunak egonen dira.

Kontabilizatzeko modu hori 1997ko ekitaldian aldatu nahi da dirubilletako programa berria ezarri, batera igortzen diren dirusarrerak kontzeptuka bereizteko modua ematen duena.

- Lizentzia fiskalean aurreko urteko bigarren sei hilekoko aldaketak ere sartu dira.

Zerga hori 1997an Ekonomi Jardueren gaineko Zergarekin (EJZ) ordeztu da; horrek aldaketak ekar daitezke dirubilletan.

- Lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergan, 5,7 milioi pezetako kitapenak erregistratu dira; horien aurka errekurso bat zegoen, 1997an ebatzia; horrek berekin dakar 4,7 milioi pezetako doikuntza egin behar izan dela.

Toki Ogasunei buruzko Legearen bosgarren xedapen iragankorra ezin izan da aplikatu. Horren arabera, 96-12-31n zerga horren sortzapena gertatuko da, aurretik ezarritako hamar urteak bete ez badira ere.

- Obren gaineko tasa zaharraren etekinak (107 milioi pezeta 1995ean) eta EIOZ eta obren gaineko tasa berriak (127 milioi pezeta 1996an) alderatuz gero, 20 milioi gehiago daude 1996an. Hala ere, esan beharrekoa da 1995eko dirusarreretan 13 milioi gutxiago izan zirela epai baten bidez dirusarrera batzuk itzultzeko eskubidea deuseztu zelako. Esan daiteke, beraz, etekina antzekoa izan dela.

- Ibilgailuen gaineko zergari dagokionez, esan behar da erroldaren mantenimenduak haren kudeaketan sortzen dituen zailtasunei (ibilgailuen altak, bajak eta transferentziak) aurre egiteko ahalleginak egin direla, Trafiko Zuzendaritza Nagusiarekin eta Lurraldeko Burutzarekin zuzeneko kudeaketa batzuk eginez.

1996 urtea arte, ekitaldi batean urte bateko eta aurrekoaren osagarriaren errolda kontabilizatzen zela. Aurten irizpidea aldatu da, izan ere derrigorrezkoa delako zerga ordaintzea ibilgailuak matrikulatu ahal izateko. Hori dela eta, 1996an 95eko eta 96ko altak kitatu dira.

Halaber, azpimarratu behar da berantien saldo oso zaharrak ageri direla; 1997an haiek garbitzeari ekin zaio.

Tasei dagokienez ondokoak ohartu behar ditugu:

a) Zenbait errekurso daude obra lizentziaren tasarengatik, kargari eta aplikatzen den tasari dagokienez.

b) Zaborren gaineko tasaren kobrantza Uren Batzarrak egiten du; estolden gaineko tasa, berriz, ez da igortzen kontsumitutako uraren arabera, izan ere hiri kontribuzioarekin batera burutzen baita.

Dirusarrerak Uren Batzarrak eginiko kitapenetatik abiatuta kontabilizatzen dira ez erroldak irizpide hartuta; hori dela eta, desdoikuntza txikiak gertatzen dira hiruhileko bateko dirusarrera gisa Uren Batzarreko kitapena kontabilizatzen delako. Kitapen horrek, normalean, Dirubilletako agenteak aurreko aldietan kitaturiko kobrantzak ere barne hartzen ditu.

c) Tasa bezala erregistratzen dira kirol jardueretarako emaniko dirulaguntzei dagozkien zenbateko batzuk.

d) Herrilurren ureztaketari dagokionez, ekitaldi bakoitzean aurreko ekitaldiko gastuak kobratzen dira.

e) Hirigintza probetxamenduengatik tasan, dirusarrerak hirigintza probetxamenduetako unitateen transferentzietan dagoak; kobraturiko dirusarrerak zenbatu dira soilik, ez kitaturiko dirusarrera guztiak, hau da, zuhurtasunaren irizpidea erabili da, izan ere, hirigintzaren alorra aztertzeo garaian ikusiko den bezala, tasa hori oso eztabaidatua izan delako.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da finantziario ukituko dirusarrerak direla.

Horrenbestez, hona gure gomendioak:

Dirusarreraren kontabilitate kontzeptu bakoitzean dagozkion zenbatekoak erregistratzea, ordainagiri horiek biltzen dituzten kontzeptuak alde batera utzita.

Berantien saldoak berraztertzeo sistematika bat ezartzea.

Ahaleginak egitea erakunde bakoitzak, udalak, Uren Batzarrak eta Mankomunitateak, dagozkion zergen bidezko dirusarrerak kudea ditzan.

VI.6.7. Ohiko transferentziak.

Kapitulu honek 1.089 milioi pezetako dirusarrerak agertzen ditu, alegia, behin betiko aurrekontuaren gaineko ehuneko 77ko betetzea. Aurreko urtearekin alderatuta, ehuneko 15eko gehikuntza izan da.

Egindako azterketaren ondoren, azpimarratu behar dugu azken urte hauetan transferentziengatik dirusarreraren kontusail garrantzitsuenean aurrekontuko gehiegitasuna gertatu dela, hain zuzen Ogasunen Fondoari dagokionean. Kontzeptu hori aurrekontua orekatzeko erabili da. Hala eta guztiz ere, adierazi digutenaren arabera, aurreko urteetako 300 milioi pezetatik 100 milioi pezeta baino gutxiago izatera jaitsi da 97ko aurrekontuan.

VI.6.8. Ondarezko dirusarrerak, inbertsioen besterentzea eta kapital transferentziak.

Ondare dirusarreretan oinarrian herrilurrak erabiltzetik, udalaren eraikinetako errentetatik eta udalaren aldeko korrituetatik heldu direnak bildu dira, funtsean.

Kapitulu honek 149 milioi pezetako betetzea du, hau da, aurreko urtekoa baino ehuneko 5 gehiago.

Inbertsioen besterentzeari buruzko kapituluak, 24 milioi pezetako dirusarrerak kontabilizatu dira, batez ere industrialdeko lurzatiak saltzeari dagozkionak.

95 urtearen aldera ehuneko 71ko jaitsiera izan da eta aurrekontuarekin alderatuta ehuneko 44ko betetzea izan du, izan ere zaharberitutako eraikinetan aurreikusitako salmentak ez direlako gauzatu.

Kapital transferentzietan 62 milioi pezetako zenbatekoa egiten dute; kuxako irizpidearekin kontabilizatzen dira. Aurreko urtearekin alderatuta ehuneko 35eko gehikuntza gertatu da eta aurrekontu bateratuaren alderatzen bada kapituluak ehuneko 39ko betetzea izan du, hain zuzen ere urte bukaeran obregatik dirulaguntzetan sartzen diren 85 milioi pezetako aurrekontu-kontsignazioa egin zelako, urte bukaeran Nafarroako Gobernuak obra eta toki azpiegituren 1996ko ekitaldirako planean sartu zituelako. Inbertsio horiek 1997ko lehenbiziko hilabetetan egin ziren.

Dirulaguntza guztiak Nafarroako Gobernuak emanak dira.

VI.6.9. Finantza-pasiboak

Kapitulu honek jasotako maileguen bidez izaniko dirusarrerak biltzen ditu. Kitaturiko eskubideek 370 milioi pezeta egiten dute, 1996 urtean eginiko 200 eta 170 milioi pezetako bi maileguei dagozkienak, hain zuzen.

VI.6.10. Egoerari buruzko balantzea

Iritzari buruz IV. atalean esandakoa aintzat hartuta, izenburu honen azpian ondokoak azpimarratu nahi ditugu:

- Ibilgetu materiala ondasun higiezinatarako katastroko baloreen balantzea eta haiek gainerakoentzako zuen balio erreala ezarri zen unean erregistratu zen.

Hurrengo urteetan, sartu direnak erositako prezioaren arabera sartu dira.

Gaur egun, inbentarioa berraztertzeari ekin zaio, beharrezkoa bada kontabilitate balioak eta inbentariokoak egokitzeko.

- Finantza-ibilgetuak udalak ANIMSA sozietatean dituen akzioak islatzen ditu.

- Zordunei dagokienez, balantzea ezarri aurretik itxitako aurrekontuetan zenbateko garbi gisa erregistratzen zirenak sartu dira, kobratzen zailak direnen ehuneko atera ondoren. Horrek esan nahi du zordunen banakako zerrendako zenbatekoen batuketa handiagoa dela.

Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra ezarri denetik balantzean azaltzen dira zenbateko osoarekin eta kobratzeko zailak direnen probisioa diruzaintzako egoera erregistratzen da; azken horretan, 1996ko abenduaren 31n 72 milioi pezeta zeuden.

- Egoera-balantzeari buruzko informazioa diruzaintzako gerakinarekin alderatzen badugu, negatiboa dela (425 milioi negatiboa) ikusiko dugu; horrek berriz ere adierazten du Tuterako Udalak finantza-egoera zaila duela.

- Epe luzeko zorrari dagokionez (jasotako maileguak), adierazi nahi dugu balantzearen zenbatekoa ez datorrela bat egoera ekonomikoari buruzko VI.3 atalean adierazitakoarekin, izan ere lehenbizikoak egun horretan zor erreak bateratuak agertzen zuen bitartean, egoera ekonomikoari buruzko koadroan udalaren zor erreal bateratua eta formalizatu gabekoa biltzen ditu.

Hona gure gomendioak:

Ahal den bezain azkar ondasunen inbentarioa berraztertu eta eguneratzea, biltzen dituen baloreak kontabilitatekoekin bat etor daitezen eta ondasun guztiak identifika daitezen.

VI.6.11. Erakunde autonomoak

A) Uren Udal Batzarra

Tuterako Uren Udal Batzarra 1891n sortu zen, Tuteran hiria urez hornitzeko helburuarekin.

1996an 378 milioi pezetako gastuen betetzea du, alegia, behin betiko aurrekontuaren ehuneko 54; bestalde, 422 milioi pezetako dirusarrerak ditu. Aurrekontu aldaketan zenbatekoa hasierako kontsignazioetakoa gainditzen du.

Betetze maila baxuaren –bai gastuetan bai dirusarreretan– arrazoia da inbertsio gehienak eta, beraz, dirulaguntza gehienak 1997an betetzen jarraitzen dela.

Adierazi behar dugu aurrekontuari eginiko aldaketek 387 milioi pezetakoak izan direla gastuetan eta 407 milioi pezetakoak dirusarreretan; horrek esan nahi du amaierako aurrekontuak dirusarrera gehiago biltzen dituela gastu baino; berdin gertatzen da aurrekontu bateratuarekin.

Iritziari buruz IV. atalean azaldutakoa alde batera utzita, egindako azterketatik ondorio hauek atera ditugu:

- Inbertsioek 13,5 milioi pezetako hasierako aurrekontua eta 383 milioi pezetako aurrekontu-aldaketak; betetzeak 143 milioi pezeta egiten ditu, hau da Uren Batzarraren betetzearen ehuneko 36.

- Gastuetako hiru proiektuk biltzen dute inbertsioen gastu gutzia:

	(Milioi (pezetaketan))
Proiektu orokorra, 1. fasea	34
Zaragoza etorbideko sareak - A fasea	37
Zaragoza etorbideko sareak - B fasea	64
Guztira	135

- Lehenbiziko obrari dagokionez, proiektu orokorraren lehenbiziko fasearen (hartunea, bultzada eta bilketa) amaierako ordainketari dagokio; MOPUK ehuneko 70 dirulaguntza eman zuen; Nafarroako Gobernuak ehuneko 30ekoa.

- Zaragoza etorbidea berritzeko A faseari dagokionez, esan behar da Toki Administrazioiko eta Herrilan Departamentuek eta FEDERek diruz lagundutako obra dela.

Obra lehiaketaren bidez esleitu zen, ehuneko 9,11ko bajarekin lizitazio prezioaren gainetik.

Adierazi beharrekoa da kontuhartzaitzaren txostenak adierazten duela klausulen pleguak ez dituela esleipenerako oinarri izan behar diren irizpideak ezartzen; halaber adierazten du ehuneko 8ko fidantza ezarri zela, legeak ehuneko 4koa eta kasu oso berezietan 6ra arteko fidantza osagarria egonen direla ezartzen badu ere.

Esleipena, behar den txosten teknikoa egin eta ondorengoa, prezio baxuena epe laburrenean eskainitakoei eman zitzaie, baja merkeegia eskaini zuen bat alde batera utzita.

Ziurtagirien guztizkoak 238 milioi egin zuen; zenbateko horrek esleipenaren 199 milioi pezetako zenbatekoaren aldera ehuneko 19,4ko desbideraketa egiten du.

Behin behineko jasoketa 1995eko azaroaren 23an egin zen eta behin betikoa 1997ko otsailaren 27an.

- Zaragoza etorbideko B faseko obrei dagokionez, adierazi behar da obra hori 1996ko urtarrilean esleitu zela lehiaketaren bidez 255 milioi pezetatan –lizitazio aurrekontuaren aldera ehuneko 15,85 baja–; Herrilan Departamentuak 124 milioi arte ordaintzeko eta Toki Administrazioiko Departamentuak Hirurteko Planean sartzeko konpromisoak daude.

Esleipena baino lehen, informazio-bilera bat egin zen eskaintzak egindako enpresekin. Bilera horretan esleipenean atal bakoitzean emanen ziren gehieneko balioak azaldu zitzaizkien. Horrek gardentasun handiagoa adierazten du aurreko fasean baino.

Aurreko kasuan bezala, ehuneko 8ko fidantza ezarri zen.

Gure lana burutzeko garaian, obrak bukatu gabe zeuden.

1996 urtean hiru ziurtagiri izan dira baina ez hurrengo lauak, izan ere ordainagiriko dataren arabera –ez ziurtagiriaren dataren arabera– kontabilizatzeko irizpideari jarraitu zaiolako. 4-7 ziurtagiriei dagokien ordainagiria 1997 urtekoa da.

Kasu guztietan, Nafarroako Gobernuak parte-hartze handia duen obrak dira.

Hona gure gomendioak:

Fidantzak arauetan ezarritako zenbatekoetan ezartzea.

Obra aldaketak gertatzen diren unean oneste, ez obrak bukatzeko garaian.

Inbertsioak sortzapenaren arabera kontabilizatzeari, hau da ziurtagiria aurkezten den unean eta ez ordainagiria aurkezten den egunean.

- Dirusarrerei dagokienez, kontusailik garrantzitsuenak uren tasari –272 milioi pezeta egiten du– eta kapitaleko dirulaguntzei –127 milioi pezeta– dagozkie.

Dirulaguntzak Nafarroako Gobernuak egindako inbertsioengatik emandakoak dira.

Tasei dagokienez, udalaren dirusarrerei buruz VI.6.6. atalean azaldutakora jo daiteke; bertan agertu ditugu udalaren, Uren Batzarraren eta Hondakinen Mankomunitatearen arteko harremanak, dirusarreraren kudeaketaren gaian.

- Bestelako alderdiei buruz esan behar dugu dirubilletako agenteari bere lanarengatik ordaindutakoa, Udalean bezala, dirusarrera gutxiago bezala kontabilizatzen dela eta Uren Batzarrak berantien kontrol egokia duela –borondatezko bidetik igorritako ordainagirien ehuneko 98 kobratzen dira–; ur galerei buruzko estatistikak egiten dira.

Zordunei buruz esan beharrekoa da 10 milioiko saldoa dagoela 1983tik 1990era bitarteko ordainagiriei dagokiena.

Uraren inguruan esan beharrekoa da ehuneko 39ko galerak izan zirela 1990ean; 1995ean, berriz, ehuneko 22koak; azkenik, 1996an ehuneko 28 egin zuten.

B) Castel-Ruiz Kulturgunea

Castel-Ruiz Kulturgunea erakunde autonomo bat da, estatutuak 1987an onetsita zituena, zentro horretan eginen diren eta udalak enkargatuko dizkien kulturaren, hezkuntzaren eta aisialdiaren alorreko jarduerak kudeatzeko eginkizuna duena. Haren lokaletan musikako oinarrizko kontserbatorioa ere badago.

Castel-Ruiz Kulturguneak honako atalak ditu:

- a) Kultur jarduerak
- b) Musika banda
- c) Jota eskola
- d) Udalaren dantza taldea
- e) Abesbatza

Adierazi behar da, gainera, udalak kultur, presakuntza eta gazteri alorra ere baduela. Alor horren arduraduna Castel-Ruiz Kulturgunearen ardura duena zinegotzi bera da.

1996ko ekitaldian 143 milioi pezetako gastuen eta dirusarreraren betetzea agertu zuen. Ekitaldia ixteko garaian ez zegoen ez défizita ez superabita, izan ere udalarekin kitapena egiten baita, hala gerta dadin.

Langileen gastuek, kontserbatorioko irakasleak barne, guztira betetzearen ehuneko 49 egiten dute; ohiko gastuen eta zerbitzuen kapituluak, berriz, ehuneko 46 egiten du.

Dirusarreretan, tasek ehuneko 18 egiten dute; diru horretatik 16 milioi pezeta musika eskolari dagozkie. Ohiko transferentziek betetzearen ehuneko 82 egiten dute; udalarenak, berriz, jasotako transferentzien ehuneko 84koak dira.

VI.6.12. Hirigintza

Gai honi buruzko marko juridiko orokorra ondoko legeetan dago: Lurzoruari buruzko 1990eko Legea; Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu bateratua onesten duen 1992ko Legegintzazko Errege Dekretua; Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 1994ko Foru Legea, eta lurzoruaren alorreko liberalizazio-neurriei buruzko ekainaren 7ko 5/1996 Dekretu Legea. Martxoaren 20ko 61/97 epaiaren ondotik, Konstituzio Auzitegiak Lurzoruari buruzko Legearen parte handiena konstituzioaren aurkakoa edo nulua zela deklaratu zuen.

Epai horrek sortu du gaur egun jada konplexua zen hirigintzazko marko legala are gehiago zailtzea, epai horren bidez indarra duen estatuko legediaren parte handi bat deuseza delako. Horrek eragina du, noski, autonomietako legedian.

Hori dela eta, lan honetan, norainokoari buruz III. atalean azaldu dugun bezala, Hiri Antolamenduari buruzko Plan Orokorren azterketa orokorra egin dugu. Haren behin betiko onespina 1991ko maiatzean gauzatu zen. Ez dugu jarduera zehatzei buruzko azterketarik egin, izan ere txosten honetako helburua gainditzeko dutelako.

Plan horrek bederatzi aldaketa izan ditu, 637/94 Foru Aginduaren bidez (95-5-8ko 59 zk.ko NAOa) eta Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez (95-8-25eko 106 zk.ko NAOa) onetsiak, funtsezko eraldaketa ekarri dutenak. Lehenbizikoa 7. unitate Integratuari buruzkoa da, eta bigarrena lurzoruaren gainerakoari buruzkoa, izan ere mugapen berria ezartzen baita banaketa alorretan eta probetxamenduen kalkulu berria egiten baita horietako bakoitzerako.

Gainera, hogeita zazpi xehetasun-azterlan egin dira eta udalaz gaindiko eragina duten lau sektorekako plan daude, merkataritza zentroak eta industrialdeak jartzei buruzkoak.

Jarduketa programak bi laurtekoetan egiteko 26 jarduera aurreikusi zituen guztira, 2.954 milioi pezetatan: 1.878 lehenbiziko laurtekoan eta 1.076 milioi pezeta bigarrean. Ondoko koadroan azaltzen da hori:

(milakotan)			
Jardueraren zenbakia	Unitatea	Kontzeptua	Guztira
1	UI-3	Lurzorua erosi/desjab.	240.000
2	UI-2	S1 Plan Partziala erred.	7.000
3		S1 lurzatiak antola. proiektua erred.	6.000
4		S1 urbanizazio pro. erred.	10.000
5		SGU-1 betetzea	438.000
6		SGUP-1 betetzea	520.000
7	UI-5	UE-7 urbanizazio p. erred.	8.000
8		Pza. Novís. xehet. azterl.	5.000
9		U1-5 lurrak erost.	60.000
10		U1-5 lurrak erost.	60.000
11		U1-5 zaharberritzea	100.000
12		Jarduera betetz. (9)	50.000
13		Proiek. burutzea	50.000
14	UI-7	A.A., desjab.	64.596
15		SGU-4 burutzea	67.460
16	UI-8	Prado Pasealek. burutz.	80.665
17	UI-9	S1 plan partziala erred	15.000
18		Lurzat. berranto. pro. erredak.	10.000
19		S1 urb. pro. erredak.	20.000
20		UE-3 xehet. azterl. erred.	10.000
21		SGU desjabetzea	14.028
22		SGU burutzea	48.096
23		UE-3 parkea burutzea	10.000
24		SGUP-3 parkea burutzea	20.000
25	UI-10	Lurzorua erosi/desjab.	240.000
26		Kaskoa berriz urb.	800.000
Guztira			2.953.845

Gaur egun, zerbitzu teknikoek emaniko informazioaren arabera, bukatutako jarduerak 7 eta 8 zenbakiei dagokie eta 5, 9, 10, 12, 16 eta 26 zenbakiak partzialki egiten ari dira. Hau da, jarduketa programa betetzeko erritmoa baxua da. VI.3. atalean aztertutako egoera ekonomikoak badu lotura bat horrekin.

Praktikan, legedi honekin sortu zen egoerak berekin ekarri zuen HAPO aplikatzeak zenbateko handien lagapenak baloratzea. Horrek eta legedian izandako aldaketek protestak sortu zituzten sektorean.

1995eko aldaketen bidez, probetxamendu ereduak eta erabilerak homogeneizatzeko koefizienteak berriz kalkulatu ziren; aldi berean, balorazio ponentziaren berrazterketa bat egin zen. Horrek guztiak probetxamenduarengatik transferentzien dirubilketak behera egitea ekarri zuen. Tasek bidezko dirusarrerei buruzko VI.6.6. atalean azaldu den bezala, 1996tik aurrera behin betiko kitapenak egiteari eta, ondorioz, aurreko behin-behineko kitapenak doitzeari, izan ere aurretik egin edo abalatu zirenak.


Horrela, esate baterako, 1996an kontabilizaturiko 5,4 milioi pezetako zenbatekoak 18,9 milioi pezetako abalak libratzea ekarri zuen.

Gure gomendioa da hirigintzan jarduteko programaren betetzea arintzea, ahalmen ekonomikoak horretarako bidea ematen duen neurrian.

Iruñean, 1997ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

ERANSKINA. UDALAREN ORGANIGRAMA 1996KO ABENDUAREN 31N.



* Zuzendaria funtzionarioa edo lan kontratadun finkoa izan daiteke (funtzionario bezala hartu dugu).



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--